

GINARRIZKO KONTZEPTUAK

1.GAIA: ESTATUA

Zer da estatua?

Estatuaren sorrera:

Estatua gizakiok XVI. mendean sortzen hasi ginen gauza artifizial bat da, hori sortzeko hainbat osagarri dituena. Estatua ez da estatikoa beti aldatzen ari da, prozesu bat da. Gizartea botere harremanen bidez banatzen da: indarra (gizakiak arrantza egitera joatean, indartsuena joango da) eta jakinduria.

Gu gatazkatsuak gara beti gure nahia bete nahi dugulako, eta beti ezin dugulako bete.

Kromogenon garaian pertsonen harremanak modu espontaneo batean sortzen zen, eta ez zegoen legerik. Beraz, bertako antolaketa guztia modu instintibo batean eginda zegoen. Baina, sedentasirmoarekin eta baliabideen mugekin (jabegoarekin arlazonatuta) batera gatazkek gora egin eta legeak sortzen hasiko dira. Ohituretatik legeak sortuko dira. Ohiturak errepikatuz sortuko dira normalak kontsideratzen direlako. Ohiturak sinismenetan sortu.

ANTZINA: sinismenak → ohiturak → legeak

ORAIN: legeak → ohiturak (adb: poligamia debekatuta dago, orduan jendeak ez du hori egiten)

Antzina boterea espontaneo zen, batzuk indar gehiago zeukatelako edota prestigioa zutelako. Gizartean, aurrerago, botere espontaneo alde batera utzi eta antolatuago bihurtu.

Erdi aroan boterea ez zegoen guk ezagutzen dugun eran antolatuta. Izan ere, ez zegoen botere kontzentrazioa, boterea banatuta zegoen, halaxe banatzen zen: erregeak, eliza/miliziak eta aristokratak.

Estatua botere bakarrean kontzentratzen joango denari esango zaio. Aldatzen joango da erregeak indar handiena izan arte. Miliziak indar gehiago hartuko du, eta burokrazia (papeleoa) sortuko da. Guztiren ondoren boterea lurralderen hiriburuan kontzentratuko da, eta bertan administrazio handi bat sortuko da estatu modernoaren sortuz.

Bi estatu mota

Estatu guztien joera boterearen kontzentrazioa izan den arren, prozesu hori ez da era berdinetan eman eta ondorioz munduaren historian zehar bi estatu mota izan dira:

- *Estatu zentralista*: erregea eta herritarren arteko botere guztiak kendu, eta botere guztia kontzentratzen da.
- *Estatu intermediarioa (ez zentralista)*: unifikazio prozesua ez da amaituko eta botere batzuk mantendu egingo dira.

Estatu modernoa

Denbora Aurrera zihoan eina boterea esku bakarrea kontzentratzeko joera gailenduko da; hots, erregearen eskuetan. Hala sortuko dira, XVI. Mendean, lehen estatu modernoak.

Boterearen kontzentrazio prozesuan bi gauzek izango dute garrantzia:

- Ejertzitoaren unifikazioa. Orain arte milizia ezberdinak izan diren arren, hemendik aurrera ejertzito profesional egonkor bakarria sortuko da.
- Burokrazia. Estatu modernoaren sorrerarekin botere intermediario guztiak (aristokrazia) galdu eta botere egonkor eta oso indartsu baten eredia sendotuko da, eta honekin batera burokrazia sortuko da. Gobernuaren inguruan antolatzen da, eta hasiera batean Gobernu erregearen kontseilari taldea zen arren, denborarekin garatu eta burokraziaren antolamendu maila gorena izango da gobernu. Modu piramidal batean antolatuta egongo da, eta bertan Estatu osatzen duten kide guztiak aukituko ditugu. Piramideko maila bakoitza gobernu ministro batek kontrolatua izango da.

Estatuaren osagaiak:

- Populazioa edo biztanleria: orain sedentarioa eta antzina, berriz, gehienez nomadismoa praktikatu. XX. mendean Afrikako leku gehienetan nomadismoa da nagusi. Nomadismoak arazoak estatuarekin, estatuak populazio egonkorra nahi duelako (nomadak mugitu eta estatuak hori ondo ez ikusi)
- Lurraldea: Populazioa bertan gelditzeko lur eremu bat behar da. Lurraldeen artean mugak sortuko dira, eta horrek arazoak ekarriko ditu. Orain ezagutzen ditugun aduanak oso modernoak dira; baina, horrek ekarriko du estatua konsolidatzea. Aduana horiek denbora aurrera doala merkataritza kontrolatuko du, eta zergak jarriko dira gauzak lurraldera sartzeko. Horrela, estatua merkatuaren antolamendu espazioa izango da.
- Boterea: abstrakzioa bat da, beraz, definitzeko zailagoa. Pertsona batek duen gaitasuna, beste batek berak nahi duena egin dezan eragitekoa. *Nik boterea daukat nik nahi dudana nik nahi dudana bezala jendeak nik egitea nahi dudana egiteko.*

Boterearen tresnak:

- Indarra edo honekin erlazioa daitekeen beldurra.
- Jakintza-arrazoiak: arrazoen bitartez lortzea, konbentzitzea.
- Aberastasuna, dirua (helburuk lortzera bidera daiteke)

Boterea kendu eta lortzearen arazoia batera jar ditzakegu. Beraz, badaude modu inkostiente baten baliatzen diren botereak ere:

- generoa eta arraza
- Adina
- Orientazio sexuala
- Itxura fisikoa: gizarteak dituen balorazioaren baitako itxura fisiko 'ona' izateak erraztasunak eman ditzake bizitzan.

- Osasuna
- Karisma (pertsona batek nahi duena egitea, erakartzeko gaitasuna)

Botere politikoa honela inposatzen da:

- Indarraren arabera: Indarraren erabilera mehatxua (= indarra erabiltzea). Gaur egun, botere politikoa inposatzeko ez da indarra soilik erabiltzen. Estatuak du indarraren monopolioa, eta indarra ez da beti guztiz kentzen (bortxaketak...) baina gizarteak hori kentzea nahiko du.
- Kontsentsu arabera

Boterea duenak beti botere gehiago nahiko du. Kontraesankorra dirudien arren eta bere helburu boterearen kontzentrazioa duen arren.

Noiz murrizten da boterea?

BOTEREA: botere ofiziala + kontraboterea

Kontraboterea: gizarte zibil antolatuak osatzen du (antolatuta bakarka baino indar handiagoa); elkarte feminista, ekologista, sindikatu, eta erakunde anitzek; baita multinazional, ehiztarien elkarte eta beste asko.

Boterea murrizten da beste botere batekin elkartzen denean. Beste botere horrek berak nahi duena egitea nahiko du. Gizarteak taldetan botere handiagoa izango du, gizabanako batek duena baina gehiago. Nahiz eta biak indar berdina eduki talde bat handiago denean gehiago du talde handiak.

Zer da nazio bat?

Ezaugarri batzuk (hizkuntza, kultura, lurra, historia eta ekonomia) amankomunean dituen giza taldea. Konstituzio sozial bat da, esanahi ugari dituelako, eta honek eztabaida ugari sortzen ditu. Nazio bat non hasten den eta non bukatzen den esatea ezinezkoa da. Nazio hitza jaiotzatik dator, eta jaio zaren lekuaren arabera da.

Historikoki gure nazioaren ideia Frantziar Iraultzatik dator. Egund, nazioa estatuarekin lotzen da. Egund politikarekin lotzen dugu nazioa. Demokratizatuta dago lehen normala baitzen nazio bat ezberdinek dominatzea.

Nazioaren ideia = espazio geografikoa + botere politikoa

Demokrazia bere jaiotzatik egund da nazio ideiarekin lotuta. Ez dago mundu mailako demokraziarik, hainbat iraultzaren bitartez sortua da. Iraultzarik garrantzitsuena Frantziako Iraultza da, garai hartan ezarritako mugekin sortua izan zelako.

Nazio modernoa alde z aurretik bizi ziren horien mugak zehazteko sortua. Alde z aurretik bizi direnei nazioa, eta bertako erabakiei subiranotasun nazionala (lurralde hortakoak direnek hartzen dituzte erabakiak).

Estatu nazioaren ideia: nazio bat dira estatu batean bizi diren horiek. Estatuaren mugen barruan beste gizarte bat egiten saiatuko dira. Egund botere politikoarekin nahasten da nazioa. Estatua = Nazioa

Estatu nazioa **XIX. Mendean**

XIX. mendea Erromantizismoaren garaia izan zen; hots, Erromantizismo izeneko mugimendu kulturala eman zen.

Garai honetan, Alemania inguruan, nazioaren beste ideia bat sortu zen. (Frantziarren ideiarekin aurkakoa dirudien arren, oinarri bera dute bi ideiek)

Hala, nazionalismo erromantikoa sortuko da, Europako lurralde askotan ezagu egingo dena. Honek estatu-nazio bikotea birplanteatzen du, baina alderantziz hartuta; hots:

Nazioa da objetibizatu daitekeena; nazioa dena estatu bihurtu behar da; eta ez estatua dena nazio bihurtu.

Nazioa → Estatua

Hala ere, eta Frantziar pertzepzioarekin duen itxurazko aurkakotasunera itzuliaz, helburu edo oinarri berbera duela azpimarratu behar da. Hau da, Estatu = Nazio ekuazioa hautsi ezina da bi kasuetan.

Estatua = Nazioa

- Esan bezala, beraz, bi nazionalismo mota horietan planteatzen da nazioa eta estatuaren arteko harremana. Gainera, bietan ulertzen da estatu baten nazio bakarra soilik bizi daitekeela; hau da, estatua mononazionala dela onartzen da. (Nazio bat, estatu bat)
- Gainera, bi nazionalismo 'kontrajarrientzat' estatua homogeneous izatea da helburua

Baina, hau ez da horrela izaten Portugal eta Irlanda baitira estatu mononazional bakarrak.

Are gehiago, munduko leku askotan aurkakoa gertatzen da: ezaugarri identitarioak berdinduz ematen badira ere, estatu ezberdinak osatzen dira (Hego Ameriketako kasua da). Hau hala da bilakaera historikoaren eraginez.

Nazioa bakoitza ideia batetan oinarritzen da. Horrela, esan genezake:

- Estatua suten nazioek, Frantziar jatorriko estatu-nazioaren ideia hartzen dute. (Estatu bihurtu behar da nazio bat dena)
- Nazionalismo azpiestatuek, ordea, (Euskal nazionalismoa adibidez) Alemanian sortutako nazionalismo erromantikoa hartzen dute oinarri.

Subiranotasun Nazionala

Frantziar Iraultzan sortutako ideia da. Subiranotasun kontzeptuak soberanori (iraultzaren aurretik zegoen Erregerai) egiten dio erreferentzia. Horrela, subiranotasun nazionala antzina soberanoaren ideia zena nazioarentzat izatea aldarrikatzen du.

Orain agintari nazioa jarriko dugu erregeak beharrean. Beraz, beharrezkoa da nazioa nork osatzen duen eta nork ez argitzea. Herria izango delako soberanoa.

Adibidea: azterketa zein egunetan egin nahi den adostea. Herriaren hitzaren arabera 39k nahi dute ostegunetan egin (hau izango da boto gehien lortu dituen eguna). Baina, gainontzeko 61ek ez du azterketa ostegunetan egin nahi.

Bigarren bozketa batean, aurreko bozketan boto gehien lortu dituzte bi emaitzen artean bozkatuko da. Asteartea edo asteguna? Aurretik astearteak ostegunak baina boska gutxiago zituen ; orain, ordea, boto gehiago ditu.

Bi bozketak demokratikoak dira, bigarrena demokratikoagoa ordea. Baina, demokratikoena denon adostasuna litzateke.

Subiranotasun nazionala Herriaren borondatean oinarritzen da, hau da, herriaren hitzean oinarritzen da. Baina, kontuan izan behar da herriak ez duela 'hitz bakarra', 'hitz ugari eta ezberdinak' ditu. Ezberdintasun eta kontraesan hoiren baitan, demokraziak zenbateko kontsentsua sortzen duen neurtzen du. Horrela, ideia honek huts egiten du ez duelako aintzat hartzen beti egongo dela baten bat desdosa egongo dena, eta hoir ere herriaren parte dela.

Demokrazia = kontsentsua + disentsua (desadostasuna)

Subiranotasun nazionala Rousseauk sortutako borondate orokorra deituriko ideia oinarritzen da. Rousseuren utopia:

'Pertsona guztiak libre eta berdin jaiotzen gara'

Jean Jacques Rousseau (1712/1778)

Suitzar idazle, musikagile eta filosofoa izan zen, frantsesez idazten zuena, ilustrazioko pentsalaririk nagusienetako bat izan zen. Haren lanik ezagunena Gizarte-Hitzarmena, Aitorpenak eta Emilio, edo Hezkuntzaren gaian dira.

Oso filosofo berezia izan zen bere garaian, haize kontra joan zena, eta maiz kritikatu bere ideengatik. Ilustrazio garaiko baikortasun eta aurrerabide giroan, hark gizartea, aurrerapena, arteak eta zientziak kritikatu eta mepretxatu zituen, arrazoian oinarrituta, haiek gizakiaren ustelkeria eta gaitz guztien iturria zirela ondorioztatu. Hau dela eta, Erromantizismoaren aintzindaritzar hartzen da, arrazoien aurrean sentimenduen garrantzia azpimarratzen duen korrante, hain zuzen ere. Pedagogian lan handia egin bazuen ere, ekarpen garrantzitsuenak politika arloan egin zituen, eta haren ideiek eragin handi izan zuten Frantziako Iraultzan.

Zer da libre izatea?

Rousseuren arabera, Pertsona bat libre da bere erabakiak bere kabuz hartzen dituenean. Baina, denek itun bat sinatu, eta bakoitzari dagozkion erabakiak norberak hartuko ditu, eta taldeko erabakiak talde osoak (Gizarte kolektiboaren ideia) hartuko ditu.

Beraz, esan genezake, era honetan ez dela askatasunik galtzen: erabaki guztiak norberak hartzen dituelako; batzuetan era indibidualean eta beste batzuetan era kolektiboan. Era kolektibo honi deritzo borondate orokorra, eta indibiduoaren borondatea borondate kolektiboan integratzean datza.

- Non dago norbanakoaren erabakien eta erabaki kolektiboen arteko muga? Non amaitzen da norbanakoaren espazioa?

Esparru pribatua eta esparru publikoa bereizten dira:

- o Esparru pribatua: norberak. Oinarrizko eskubide edo giza eskubideetan oinarritzen dira. Ikuspegi honen arabera, giza eskubideak dira norbanakoaren babes.
- o Esparru publikoa: kolektiboak.

Estatu Berriak

Nazioarteko zuzenbidea oso zuzenbide pobrea da, ez da garatua. Tradizionalki ez da nazioarteko zuzenbiderik izan. Legeak ez ditu betetzen gustatzen ez zaizkigulako, ondorioak dituelako baizik. Aintzina nazioarteko harremanak indarraren bidez egin.

Nazio Batuen Erakundea sortu nazioarteko harremanetan bete beharreko liratekeen arauak planteatzeko

Muga oso ahulak ditu. Mugak kuestionaezinak dira; estatuaren mugak estatuarenak dira, eta ezin da inor sartu. Mugak nahiko teorikoak dira kasu batzuetan posible delako muga horiek ez errespetatzea.

Nazioarteko harremanetan erabaki faktikoak defendatzen dituzte, eta hauek onartuak izango dira denbora luzean onartuak. De facto: nazioarteko gobernuak beregan dituen printzipioak praktikan jartzea. Aurreko gobernuak kontrolatzen du gobernuak. Nazioarteko harremanetan legitimitateak ez du inolako eraginik eragina interesek daukate. Hauk baitira errealitatean egoera aldatzen dutenak. Nazioarteko komunitateak eragina dute harremanetan egoera faktikoek eragina dutelako inposaketa horretan. Zenbat eta errekonozimendu gehiago izan egoera errazago kontrolatu.

Estatu berri bat nola sortu?

1. *Legalak edo borondatezkoak.* Lege batez estatu berri bat sortzea inolako indarririk erabili gabe. Oso ezohikoa den arren, estatu gehienek onartuko lukete. Historian zehar normalena indarraren bitartez sortutako estatuak izatea da.
2. *Indarraren erabileraren bidezkoa.* Gerra Zibil edo beste hainbat gertaera botitzen aurrean estatuaren mugak aldatzean datza. Estatuak kontrako jarrera erakutsi arren, azkenean beharren ondorioz onartzen dute jarrera hau.
3. *Deskolonizazioa*
4. *Erdibidekoa, ez legala guztiz ezta indarkerian oinrritutakoa guztiz, erdi legala.* Ez da adostua baina ez dute indarririk erabiltzen. Hasieran, bada estatu legal bat; baina, azkenean, estatuaren legalitatea apurtu egiten da. Estatuaren legalitatearen barnean egiten dira baina ez dute legitimitaterik. Fase transitorial bat igartzen dute; bai lehengo baita oraingo legalitatea onartuz.

Autodeterminazio Eskubidea

Estatu berrien sorreran garrantzia berezia izan duen arren, ez dago definizio zehatzik, teoriko batzuk sortutako teoria bat da, non, herriek euren errekurtsioak izateko eskubidea dutela dioen.

Estatu-nazioaren ideian eta borondate orokorrean dago oinarrituta. Izan ere, bi horien arabera:

‘Herriek euren errekurtsioak kontrolatu eta euren erakundeak izateko eskubidea dute’

Baina, aipatzekoa da estatuek dutela autodeterminazio eskubiderik onartu; hau da, nazioarteko legalitatearen ondorio izan ohi da.

Autodeterminazio eskubideak badu ibilbide bat estatu zuzenbidean eta baita konstituzioan ere. Normalean onartua izan den herraldetan ‘kalterako’ izan dela diote. Autodeterminazio prozesu legalak nazioarteko erakundeek onartuak dira, eta ez konstituzioak.

- Izan ere, autodeterminazio eskubidea NBEren itun batzuetan dago oinarrituta (1966)
 - o Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
 - o Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturalen Nazioarteko Ituna.

Autodeterminazio Eskubideak NBEri koloniak deskolonizatzeko aukera ematen dio, koloniak izandakoak independizatzeko eskubidea emanez. Hala, estatu asko independizatzen joan ziren (Saharakoa dugu adibiderik garbiena)

Gaur egun legeetan autodeterminazioa koloniei soilik ematen zaie normalean. Nahiz eta, hasiera batean onartu ez.

Quebecoko Bidea

NBEren Autodeterminazio Eskubideak ez ditu aintzat hartzen estatuen barne arazoak.

Kanadako kasua dugu adibidetzat:

Historian lehen aldiz konstituzioak ezer esan ez arren autodeterminazioaren antzeko eskubidea onartu zuten. Horrela, Kanadako Auzitegi Gorenak epai bate gin zuen: ‘Estatu demokratiko plurinazional batean ez da bere kabuz independizatuko den estaturik. Printzipio demokratikoaren arabera, lurralde bateko biztanle gehienak duten statusarekin ados ez badaude, lege batzuk jarraituz horretarako aukera eman beharra zaie. Negoziazioaren araberako prozedura bat eramango du aurrera’

Horrelako kasuak negoziazio prozesu batean oinarritzen dira, eta bi aldeek onartzen dute galtzeko aukera.

Kanadako prozesuak Kanadan du eragina eta ez beste herrialdeetan. Kanadako prozesuaren bidea nahiko berezia izan da.

2. GAIA: KONSTITUZIOA

Zer da konstituzioa?

Ez da arau multzo bat, artikulua askoren bitartez osatutako lege edo arau BAT baizik.

Legea = Agindua = Debekuak + Betebeharrak

Bi baldintza:

1. Zuzenean aplikagarria izatea
2. Lege berriak zaharra eta kontra egiten diona indargabetzen duenarena.

Konstituzioa da lege guztietan gorena, eta honek baditu ondorio batzuk:

- Aurretik ezarritako legea jada ez aplikatzea
- Konstituzioaren ondorengo legeek konstituzioa errespetatu beharra
- Legeen interpretazioa konstituzioaren arabera egin beharra
- Estatu batean existitzen diren lege guztien bilduma da.

Noiz bihurtzen da zerbait politiko?

Gauza bat politikoa denean gizarte batek hartzen ditu erabaki orokorrenak eta baita inportanteenak ere. Legeak zehatzak direnean, aldiz, teknikoak direla esaten da.

Konstituzioa jokoaren arau bat da aurrerantzean legeak nola azalduko diren adierazten duena. Honek, sistema politikoaren erregimenaren markoa adierazten du. Gizarte batean arauak nolakoak izango diren adierazten du. Politika nola antolatuko den.

Nola justifikatzen da? Zergatik behar da konstituzioa?

Rousseau: Nola antolatuko litzateke gizarte egoki bat ideia bat abiapuntutzat hartuta. Nola egingo lukete euren askatasuna mantenduz. Baina, mantentzeko elkarbizitza araua itun politiko batean adierazten dituzte.

Bi baldintza:

1. Esparru pribatuan pertsonak dagozkion erabakiak hartu. Erabaki horiek askatasunez.
2. Esparru publikoan erabakiak guri dagzkigu. Erabaki horiek kolektiboan. Hauek borondate orokorrari egiten diote erreferentzia, hau da, herriaren borondateari. Baina, ez da existitzen borondate orokorra fikzio bat da.

Konstituzio baten gutxieneko EDUKIAK

1. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak: beti errespetatu esparru pribatu bat non bakoitzaren erabakiak hartzen diren. Honek gehiengoarengandik defendatzeko aukera ematen du. Gure eskubideak murriztu egiten dizkigute, bai estatuak, bai enpresak eta baita beste hainbat instituzio ere. Baina konstituzio batek nahi ta nahi ez eskubideak izan behar ditu.

2. Boterearen antolaketa: pentsamendu demokratikoaren arabera botereen banaketa egiten du (Montesquieu). Botereak kontzentratzeko aukera duen arren, botereak deskontzentratzea (banatzea) garrantzitsua da, eta hiru zatita banatzen dira:
 1. *Legeak egitea*: Legeak ezagutu ez arren bete egin behar dira teoria legeak ezagutu beharra dagoelako, eta zuzenbide estatuak horretarako aukera ematen digulako. Zuzenbide estatuan erabaki arbitrarioak (aurreikusitakoak) erabaten dira aurrera. Hauetan asmoa ez da norbaiten nahia betetzea zuzenbide estatua jarraitzea baizik.

Legeak *parlamentuan* egiten dira, eta bertan ideologia ezberdineko pertsona asko daude. Hortaz, parlamentuko prozesua geldoa da.

Pertsona asko egotearen helburua desberdinen artean hitz egin eta eztabaidatuz legeak idaztea delako. Hala herrialdearen barneko gatazka murriztuko da baina diskutituz.
 2. *Legeak betearaztea*: botereak berak legeak bete behar ditu, eta gainontzekoak horretara behartu.

Gobernuaren zeregina da eta ez du aniztasun handirik hauteskundeetako irabazleen ardura baita. Hau eztabaidak ekiditeko egiten dute, eta prozesua azkarra delako.
 3. *Auzi boterea*: lege baten aurrean gatazkak sortzen dira, eta gatazka horiek konpondu ahal izateko bitartekari bat (epailea) behar da.

Justiziaren betekizuna legeei jarraitzea da, baina, epailearen epailearen erabakiak legearen interpretazioaren arabera aldatuz doaz.

Errealitatea legearen betaurrekoekin irakurri behar da.

Pertsona eta gizarte aztergai dutenek beti izango dute subjektibotasun pixka bat.

Konstituzioaren beste eduki batzuk

1. Sinbologia: estatuaren izena, hiriburua, bandera eta abar.
2. Lurralde antolaketa: konstituzio batzuk lurraldea nolakoa den adieraziko dute. (Ez da konstituzio guztietan agertzen, Frantziakoan adibidez)

*Estatu zentralisten konstituzioetan EZ da ageri.
3. Eredu sozioekonomikoa: gizarteak nolakoa izan behar den adierazten dute.
 - a. Estatu sozialean estatuari ekonomian zer dagokion adierazten dute. Izan ere, kasu honetan, estatua ez da ekonomiarekiko neutroa eta bere ardura sistema ekonomikoa bideratzea da.
 - b. Estatu liberalean, ordea, ez zaio aipamenik egiten, ez estatuari ez dagokiolako ekonomia antolatzea merkatuak baizik. Kasu hauetan jabetza bera da konstituzioak arautzen duena.

Konstituzio formala eta materiala

- Konstituzio Formala: Konstituzioa ez da paper idatzi bat bakarrik. Konstituzioak estatuak nola funtzionatzen duen adierazten du.
- Konstituzio Materiala: Konstituzioa errealitatera ekarriz idatzita dagoen hori praktikan jartzea da. Honek definitzen du ze indar jokoan eta zer baldintzatu (boterearen eta kontraboterearen harremana)

Konstituzio formalak materiala baldintzatzen du, eta alderantziz. Beti dago distantzia bat idatziaren eta errealiteren artean.

BOTEREA ETA GIZARTEA ESTATU LIBERALEAN ETA ESTATU SOZIALEAN

3.GAIA: KONSTITUZIO LIBERALA: BOTEREAREN ANTOLAKETA, GIZARTEAREN ANTOLAKETA, GIZABANAKOAREN EGOERA ETA ESKUBIDEAK

Zer egiten dugu sailkatzerakoan? → sinplifikatu (gauzak ulertzeko modua), gutxi gorabeherako gauzak elkartzen ditugu. Honen arrazoia munduaren konplexutasuna da.

Liberalismoa, anarkismoa,... (ideologiak) ez dira existitzen, teoria bat direlako.

→ Liberalismoa utopia bat da, eta beste gauza asko horren isla dira.

Munduko estatu guztiek dituzte ezaugarri liberalak.

Estatu liberala XIX. mendean liberalismoaren ideiak zituen estatua da.

Sarrera

Edozein fenomeno historiko lortu ahal izateko aurretik izandakoei jarraitu beharra dago, dena ezerezetik datorrelako.

Munduan beti funtzionatu izan da batasunean; hots, pentsamendu bakarra jo ohi da zilegi edo egokitzat, gainontzekoak okertzat joaz.

Liberalismoa absolutismoaren indar dialektiko, kotra, sortu zen. Hala, aurreko gizartean (absolutismoa) zeuden arazoak konponduko zituztelakoan.

Absolutismoa

Absolutismoa boterea mugarik gabekoa da, hau da, absolutua, eta botere hori izateko eskubidea pertsona bakarrean kontzentratuta dago

- Boterea
 - absolutua (mugarik gabeko boterea)
 - zentralizatua (pertsona bakarrean kontzentratua)
 - estatu modernoak botere guztia kontzentratu zuen, eta hala sortu zen XVI. mendean estatu modernoak.
- Gizartea
 - estamentalak (departamendu estankoei antolatuta dago gizartea)
 - artisansuak gremiotan antolatu eta hemendik etorriko da gero langile klasea.

Liberalismoa

- Boterea
 - mugatua edo erlatiboa → botere absolutua mugatzen saiatuko dira, boterea murrizten.

Boterea gogorregia zenez liberalismoak boterea mugatu nahi zuen absolutismoari aurka eginez

Boterea gehiegizkoa denez boterea deskontzentratzea dute helburu. Horretarako, botere banaketa bat eramango da aurrera, eta boterea 3ren artean banatuko da batzuk dana izan ez dezaten. (2 botere politizatu eta 1 despolitizatua)

Erabakiak Absolutismoaren erabakiak? Erabaki arbitrarioak (justifikatu gabeko erabakiak, aurretik jakin ezin daitezkeenak)

Liberalismoaren erabakiak? Erabaki arautuak (erabakia alde aurretik ezagutu daiteke; ez %100 baina hein handi batean jakin dezakegu nondik joan daitekeen). Arauak lehen baina gehiago mugatuko dira; baina baldintza horiek ez dira %100 betetzen.

+Gobernuak erabaki arautuak hartuko ditu, eta arabaki horien berri alde aurretik izango dugu.

- Gizartea

-Liberalismo eta demokraziaren ideia ez da gehiengoak nahi duena. Aniztasunaren ideia da oinarria.

-Mundua ikusteko bi modu: aniztasuna (denbora epe oso laburrean existitu) eta batasuna.

-Estamentala (pertsona bat estamentu batean sartu eta bertako foruak jarraitu)

Aniztasunaren ideia (pluralismoa) → munduan jende gutxik du ikuspegi hau.

-Besteen ideia eta arrazoiak onartzea du helburu, eta ez dago mundua ulertzeko arrazoi bakarra.

-Historiako bi momentutan existitu:

1. Antzinako Grezian (baliteke gauzek jatorri bakarra ez izatea)

2. Europar ilustrazioan

-Aniztasunaren ideia Greziar garaia amaitzean desagertu eta hemendik aurrera ideia bakarra.

-Demokrazia beti gehiengoarekin lotzen da baina arazo bat dago, eta arazo hori aniztasuna da, gutxiengoarekin lotzen delako.

-Liberalismo politikoa disidentziarekin lotuta → posible da momentu batean batzuk ados ez egotea.

Noiz sortzen da liberalismoa?

-Lehen disidenteak → erlijioaren munduan (XVII) (Eliza katolikoaren lehen autoridadeengansinestesteari utzi)

* Mundu guztia Vatikanok esaten duena betetzera behartuta.

Erljioa esparru politikora zabalduko da, eta honekin erregeren absolutismoa kuestionatzen hasiko dira. (Honetan hasi erlijioa ez dutelako onartzen)

Liberalismo politikoa → errege absolutoaren eta Aita Santuaren autoritatea kuestionatu.

Zergatik minoria ez da majoria bezain garrantzitsua?

-Aniztasuna dago partizipioaren aurretik

Mundu guztiak bakarra dagoela pentsatzen duelako, eta ez duelako aniztasuna babesten.

Gizarte estametaletik gizarte klasistara

Gizarte estametalala → jendearen arteko banaketa arauak sortu, eta arauak desberdinak.

Gizarte klasista → arauen aurrean pertsona berdinak sortuko dira.

-Herria bi estamentuta banatuta (estamentuaren arabera pertsonak gizartean duen garrantzia definitu)

Bi klase (garai berriko sistema produktiboarekin lotuta)

- | | |
|---------------------------------------|-----------------------|
| 1. Burgesia → kapitala dutenak | Garai berriko klaseak |
| 2. Proletalgoa → kapitalik ez dutenak | (aurrekoek jarraitu) |

-Desberdintasun handiena ez dator aristokraziatik, botere iturri nagusia kapitala bihurtuko da.

-Zerk sortuko du aldaketa? Ideologiek eta pentsamenduak eta aldaketa teknologikoek.

Aldaketak → pribilegioak pertsonak aberastasunarekin duen harremanetik datoz

-Ordurarte ekonomia lurraren erabileraren inguruan mugitu, eta kapitalik handiena bertatik.

-Fabrika sortu → garaiko nekazari, morroi eta artisauak langile bihurtu.

-Fabrika eta produkzio masiboan oinarritutako gizarte berria sortuko da, eta langileak batu eta fabriketan sartuko dira.

-Gizartea industrialala bihurtu (industriak sekulako garrantzia)

-Gizarte estametaletik klasistarako pausoa prozesu bat da, eta ez da guztiz aldatuko, aurrekoa ere nahasten da batzuetan.

Kapitalismoa (liberalismo eta gizarte klasistaren lotura)

Zer EZ da? Teoria bat

- Kapitalismoa ≠ merkatua: merkatua beti existitu izan da. Merkatu ekonomia librea (kapitalismotik proposatutakoa) ez da inoiz existitu, teoria utopiko bat delako, modelo intelektual bat.
- Kapitalismoa ≠ liberalismoa

Estatu liberalak gizarte estamantaletik gizarte klase batera pasatzea suposatzen du.

Gizarte prozesu hau eredu ekonomiko batekin lotuta dago → kapitalismoa: ez da besterik gabe merkatua, ez da merkatu ekonomia librea edo liberalismoa, merkatua beti eman da, merkatu ekonomia librea ez da inoiz existitu utopia bat baita.

Kapitalismoaren oinarriak

Kapitalismoa existitu izanda eta arlo garaikidearekin lotuta dago, XIX. mendetik aurrera.

Kapitalismoak beste merkatuek ez dituzten ezaugarri batzuk ditu, hau da, merkatu mota berezi bat da. Zein dira ezaugarri horiek? Zein dira kapitalismoaren oinarriak?

1. Enpresa kapitalista

Kapitalismoa baldintza baten ondorioz da posible: enpresa kapitalistaren ondorioz.

- Historian zehar, ez da beti existitu, salbuespen historikoa da.
 - o XIX. mendera arte, ez zen enpresa handirik existitzen, eta aberastasuna lurren jabeekin lotuta zegoen. Enpresa mota berezi bat da, eta ez du beste enpresa motekin zerikusirik.
 - o Egun, gauzak aldatu dira, aberastasuna enpresetatik lortzen da.
- Aipatutako aldaketa hori hala da enpresa kapitalista bat sortu zelako. Izen ugari dituen arren, Sociedad Anonima (S.A.) deritzo. Enpresa berezi batzuk dira antzina existitzen ez zirenak. Bertan, akzioak eta erantzukizun mugatua ditugu. Akzioak dituzu, eta enpresa gaizki badoa zure erantzukizuna da enpresa horren etorkizuna. Horregatik, enpresak txikiak ziren. Enpresa handiei kapitalismoan eman zitzaientzen hasiera. Irabaziz gero mugagabe irabaz dezakezu; baina, galduz gero akziok soilik galduko dituzu. Antzinako enpresetan zuk dirua sartu eta zorrak bazeuden zorrak osorik ordaindu beharra ziren.

Zuzenbideak erantzukizun osoa ez duen forma juridiko bat sortu eta Europako lurraldek kolonizatzen hasiko dira; baina, horretarako diru asko behar da, eta erregeak ez zuten behar beste diru. Horregatik, 'indietakokonpaniak' sortu zituzten. Honekin enpresa modu berri bat egin zuten herritar gehienek dirua batu eta enpresa handiak sortzeko. Enpresa mota honek ez zuen garai baterako balioko, orain sartutako dirua soilik galduko dute.

Hemendik sortuko dira lehen enpresa kapitalistak. Hauek, lehen enpresa handiak sortzeko balioko dute, eta enpresa hauek ingurutik bildutako dirua erabilia enpresa handiak sortuko dituzte. Hasiera batean erregeen pribilegio gisan sortuak dira baina gero pribilegio hori pribatizatu egiten da.

Kapitalismoak badu tresna bat kapitala kontzentratzea ahalbidetzen duena. Ordura arte kapitalismoa sortzeko belaunaldiak eta belaunaldiak behar ziren, edota lapurreta. Dirua kontzentratzea eta aberastasuna modu esponentzial baten lortzea ahalbidetze du enpresa mota honek. S.A. kontzentrazioarako tresna garrantzitsua.

2. Teknologi eta mekanizazioa: Urbanizazioa eta industria iraultza

Aipaturiko bi ezaugarri horiez gain, teknologiaren eboluzioak eta makinaren sorrerak gizartearen makizinazioa eragingo du: hau da, makina berriak, motorrak eta abar sortuko dira.

Honek, enpresa kapitalistak ematen duen aukera osatzea ahalbidetuko du. Baditugulako makinak serie produkzioa eta katean lan egitea ahalbidetuko dutenak.

Orduan enpresak sortuko dira jendea pilotuko dutenak. Horien arten daude bai fabrikak eta baita meatzeak ere. Honek, jende askoren bizitza aldatuko du, batez ere herrialde aurreratuetan. Katean lan egiteko jende pila bat behar da produkzio masiboa aurrera eraman ahal izateko.

Honek urbanizazio prozesu bat sortuko du. Orain arte jende gehiena nekazaritazatik bizi zen, eta hemendik aurrera hirietara joango dira fabrika eta meatzetan lan egitera.

XIX. mendearen amaiera eta XX. Mendearen hasieran lan baldintzak oso kaxkarrak ziren. Jende gehiena fabriketan lanean egunean 14 orduz lan eginez, esklabuak bailiran.

Fabriketako egoera inolako askatasunik gabeko egoera bilakatzen da, esklabu gisa egiten dute lan. Askotan langileen egoera antzinako artisauena baina gogorragoa bihurtzen da. Artisauak zituzten doaiak galtzen joango dira, ez baitaukate egiten duten lanaren kontrolik. Produkzio masiboari ematen zaiolako hasiera. Langileak prozesu osoaren barnean zati txiki bat bakarrik egiten du. Langileak bere eskulana saltzen du soldata baten truke. Produkzio katean mugimendu bat egitea da bere lana. Gizarte berriaren zutabeak eraikitzen hasten dira. Egoera hau ez da herrialde guztietan ematen soilik herrialde garatuetan ematen da. Ez dira aurreko lan guztiak galtzen, baina beste lanbideek euren erabilpena galtzen dute.

Enpresa batzuk pribilegioekin jokatzen dute, eta enpresa horiek enpresa handiak dira. S.A. dirua lortzeko enpresa pribilegiatu bat da. Beste enpresa bat sortuz gero ezingo dugu gainontzeko enpresek duten pribilegioa lortu.

Enpresa txiki eta ertainek ez dute pribilegioa manejatzeko aukerarik. Handiek soilik aprobetxa dezakete S.A. edo S.A.L. izate hori. Enpresa handiak botere gune pribatuak dira, eta ez dira soilik dirua lortzera mugatzen abantaila batzuk dituztelako.

Botere politikoarekin ere lotura zuzena dute. Dirua egiteko enpresek loturak behar dituzte boterearekin eta politikarekin.

Ekonomia ez da liberalismoak dioen moduan independentea, botereari erabat lotuta dago. Ekonomia ez da libre.

Gizabanakoaren egoera gizarte liberalean

Estatu liberalarekin sortzen da gizabanakoa, ordura arte ez da gizabanakorik existitzen. Gizabanakoa indibiduotik dator eta askatasunak sortzen du.

Gizabanakoa

Gizabana: gizakiak desberdinak dira, eta euren erabakiak hartzeko aukera dute. Pertsonak ez du inolako askatasunik bere bizitza antolatzeko, bere arbasoek egiten zutena egiten zuen. Pertsona gizarte baten arauekin, lurrarekin, artisau lanbidearekin, morroitzarekin eta pribilegioekin lotuta zegoen.

Hau estatu liberalean aldatu egiten da, jendea antzinako erregimeneko loturetatik askatzen du. Onartu egiten du posible dela batzuk oker egotea. Planteatu gizakiak ez direla ez estamentuetan jaiotzen ezta pribilegioekin edo pribilegiorik gabe.

Askatasun teoriko bat sortzen du honek, eta desberdin pentsatzeko aukera ematen du. Hala, gizabanakoak sortzen dira, non bizi zer lan egin... aukera dezaketenik (mugatuan).

Momentu honetan gizabanakoa munduaren zentro bezala ikusten hasten da. Indibidualismoaren ideiak badu berdintasun eta askatasun ideia bat.

Liberalentzat askatasunaren ideia: eta berdintasunaren ideia: legearen aurreko berdintasuna, pertsona guztientzat arau berdinak (lege berdina mundu guztiari). Ideologia bat sortuz gero arau horiekin lortzen da. Jaiotzen zinen estamentuaren araberako pribilegio eta legeak alikatzendizaizkizun.

Liberalismoan arau ezberdinei uko desberdintasun bat sortzen delako. Lehen uste zuten mundu guztia hiritar bihurtuko zela, ez morroi, ez jauntxo... Garai hartan hau gertatuko zela imaginatzen zuten, baina, ez zen hala gertatu. Pertsona orori lege bera aplikatuz gero ez da askatasuna sortzen mota askotako diskriminazioak daudelako.

Berdintasunaren ideiak diskriminazio legala kentzea dakar. Hemendik aurrera denentzat lege berdinak egingo dira. Baina ez da nahiko arau berdinak izatea denak berdinak izan daitezen. (Legearen aurreko berdintasuna → berdintasun formala) Teorikoki berdintasuna dago baino errealitatean ez dago berdintasunik. Momentu honetan dagoen berdintasuna berdintasun legala da. Berdintasun formala legearen aurreko berdintasuna.

Industrializazioaren lehen urteetan, kapitalismoaren lehen fasean, antzinako erregimeneko baldintzak baina gogorragoak izan zituen.

Zer da askatasuna liberal batentzat?

Loturarik edota menpekotasunik ez edukitzea. Nor bere kabuz bere erabakiak hartzeko modua. Liberal batentzat garrantzitsuena askatasuna da.

Nola lortu askatasun hori?

Botere publikoa da askatasunaren etsaia, ez baigaitu lagunduko. Askatasuna estatuaren botere politikoaren kontra erreibindikatzeko da. Ez dio botere politikoari bere askatasun esparruan sartzen.

Liberalentzat inportanteena partikularrek kolektiboarengandik askatu ahal izatea. Liberalentzat garrantzitsuena gizabanakoa. Interesatzen dena pertsona bakoitzak zer nahi duen. Garai hartan, inolako askatasunik ez zuen gizartea planteatzen zen.

Gizabanakoak bere erabakiak hartu ahal izatea, eta bere askatasun esparruan inor ez sartzea planteatzen da. Hiritarrek ahalik eta askatasun handiena izateko liberalentzat garrantzitsuena ahalik eta estatu txikiena izatea (estatu polizia, estatu minimoa). Estatuak jenderi segurtasuna soilik eman behar dio, ez dauka beste ezer eman beharrek. Gainerakoa besteekin harremanetan lortuko dute gizabanakoak

Lehen estatu liberalak eskubide eta obligazio batzuk arautzen ditu.

- Jabego pribatua, adierazpen askatasuna, kulto askatasuna (erlijioso), sufragioa edo eskubide politikoak, pentsatzeko askatasuna (lehen askatasuna) dira eskubide horietako batzuk.

Liberalismoak jendeak nahi duena pentsatzea planteatzen du. Askatasun guztiak liberalismoaren ideiarekin hasten dira.

Munduan pentsaera legitimo bat bakarrik zegoen, eta pentsamendu legitimo hori erlijioa zen. Erlijioak esaten zuen zer zen ona eta zer txarra. Erlijioak aurrekari batzuk izan ituen Grezian eta filosofiak erlijioaren ideiari hainbat kritika egin dizkio. Hainbat egia egon daitezkeela planteatzen baitu.

Gure buruan gatazka bat sortzen du besteek gurekin konforme ez egon eta arrazoia izan dezaketela jakiteak. Desberdin pentsatzeko eskubidea adierazpen askatasunarekin lotuta dago.

Adierazpen askatasuna publikoa da, eta pentsatzeko askatasuna, aldiz, pribatua da. Elkarbizitzan eskubideak murriztu behar dira, baina, pentsamendu askatasuna ez dago zertan murriztu.

Non dago adierazpen askatasunaren eta eskubideen muga?

Eskubideek besteen eskubideetan dute muga, eta adierazpen askatasunak besteen ohorerako eskubidean, hau da, beste pertsonaren izen ona kaltetzen dugunean. Batek eskubide bat erabiltzek bestearen eskubidearen erabilera kolokan jartzen du. *Adb: manifestazio bat egin nahi dut bihar; baina, beste manifestazio bat dago leku eta ordu berean / kazetari batek intimitate eskubidea errespetatu behar du.*

Liberalismo garaiko eskubideei lehenengo milako eskubideak deritze. Eskubide horiek: adierazpen askatasuna, egoitzaren bortxaezintasuna, zirkulatzeko askatasuna, egoitza hartzeko askatasuna... dira. Garai honetako eskubide guztiak askatasunak dira.

Zer egin estatuak eskubide liberal eta zibilak bermatzeko?

Estatuak ez du dirurik gastatu behar, nahikoa du mugak ezartzearekin. *Adb: nire egoitza askatasuna babesteko nire etxean ez sartu.* Eskubide hauek estatuaren kontra eginez errebindikatzen dira. Eskubide zibilak estatua gelditu egotearekin lotuta daude, hau da, estatu geldiaraztearekin.

Eskubideen bigarren belaunaldian eskubide politikoak sortuko dira. Eskubide politikoak alderdi politikoak sortzeko, botoa emateko, hauteskundeetara aurkezteko eskubidea dira. Eskubide hauek botoa bermatzen dute (sufragioa). Eskubide hauek parte hartzeko balio dute.

Beste eskubideekin zerikusirik ez duen eskubidea, eta estatu liberalarentzat garrantzitsua dena → **jabetza pribaturako eskubidea**

Jabetzak badu izaera berezi bat. Askatasunarekin alderatuz materiala da, askatasunak, berriz, inmaterialak dira (askatasunak ez du mugarik).

Materiala denez lortu beharra dago, eta lortuz gero eskubidea praktikara eraman eta besteak objektu hori hartzetik aldentzen dira. Materia mugatu bat du jabetzak, eta gureganatzean besteei kentzen dizkiogu gauzak. *Adb: ordenagailua nire da, eta besteek ezin dute hartu.*

Norberak duena besteengandik atera eta geureganatu.

Eskubide hau ez da beste eskubideak bezalakoa, eta maila batetik gora erabiltzean arriskutsu bihurtzeko daiteke. (Ondasun mugatuak: lurra). Jabetza gehiegi kontzentratzean arrisku bat suposatzen duen erabilerrako. Liberalentzat jabetza eskubide sakratua da, inportantzia handi du liberalentzat.

Enpresa askatasuna: jabetza pribatuaren beste ikuspegi bat. *Adb: kotxe bat badut neure jabetzara; baina, kotxea taxi gisan erabiltzen badut jabetza hori enpresa bihurtzen da.*

Jabetza eskubidea eta enpresa eskubidea estatu liberalaren oinarriko eskubideak dira, eskubide horietan oinarritzen baita ekonomia osoa.

Nola justifikatzen da jabetza liberalismoan?

Trukean zerbait emanda lortzen dira gauzak, hau da, lan eginez. (Lockerentzat gauza lortu ahal izateko modu arruntena lana) Gizakiok asetzeko behar duguna baina gehiago egingo dugu lan. Hala, soberan dugunarekin trukean ondasunak lortuko ditugu. *Adb: arrantzale edo ehiztari batek nola lortuko ditu gauzak? Arrantzatzen edo ehizatzen eta horiek trukean emanez.*

Jabetza garrantzitsu bihurtzen hasten da gizakiek nomadismoa uzten dutenean eta sedentario bihurtzen denean. Hortaz, gizakiak nekazaritzan hasten dira lanean. Behin lan horietan hasita jabetza lortzen hasiko gara.

Aberastasunak lortzeko jendea kontratatu beharra dago; hortaz, etekinak ez ditugu gure kabuz lortuko besteen kolaborazioa beharko dugu. Honekin etorriko da herentziarako eskubidea (jabetza pribatuarekin erabat lotuta).

Klase herritarrek botoa eman eta gizartea eta estatua aldatu egingo dira. Alderdi sistema ere aldatuko da.

XIX. mendean liberalak (ezkerrekoak) eta kontserbadoreak (eskuinekoak) bereiziko dira. (Horrela deitzen zaie parlamentuan eseritzen ziren lekuaren arabera).

Baina, XX. mendean haustura ideologiko bat sortu eta langileriarekin (mundu sindikalarekin, langile mugimenduarekin eta ideologia anarkistarekin lotutakoak) eta burgesiarekin lotutako alderdiak sortuko dira

4. GAIA: KONSTITUZIO SOZIALA: BOTEREAREN ALDAKETA, GIZARTEAREN ANTOLAKETA, GIZABANAKOAREN EGOEA ETA ESKUBIDEAK

Estatu Soziala

Sarrera

Estatuak ez dira existitzen, errealitate materiala dira, eta ideologiekin antzekotasuna izan dezakete. Batzuk diote estatu soziala gauzak ulertzeko modu bat besterik ez dela, eta estatu eskandinabiarrarekin lotzen dugu.

Kokapen historikoa:

XIX. mendearekin lotzen dugu.

- Lehen estatu soziala? 1919an Alemanian Weimarreko errepublikaren barnean sortu zen, nazismoarekin batera. Baina, horren aurretik Estatu Soziala zen.
- Honen aurretik Mexikar Iraultzako konstituzioan aipamen bat egiten zaion arren, ez zen abian jarri.

Estatu liberala teoria liberal eta demokratikoetatik edaten duen teoria da. Estatu soziala, berriz, estatu liberalaren eboluzio bati deritzo. Hasiera batean teoria liberal eta demokratikoei egiten die kasu; baina, pentsamendu sozialistetatik ere edaten du.

Sozialismoa

- XIX. mendean sortutako ideologia bat da.

Estatu batzuetan praktikara eraman zen, hau da, errealitatean ez izan arren, estatu batzuk ideologia honen jarraitzaile gisan definitzen dira.

Parlamentu liber-demokratikoen eta parlamentu sozialisten artean dagoen erdibide moduko bat da.

Pentsamendu liberal demokratikoa absolutismoak zituen arazoak gainditzeko sortua da. Estatu liberalak konpondu ez dituen arazoak konpontzen saiatuko dira.

- Sozialismoen artean, utopikoa baztertuta, *Marxismoa* (Marx eta Engels) da ezagunena. Proposamena:

Gizarte arazoak konpontzeko proletarioen diktadura eta klaserik gabeko gizartea (gizarte komunista) planteatzen dira.

Langile klaseak boterea hartu eta langile armatuen estatua sortu behar du, proletarioen diktadura (lehen fasea). Gero, klaserik gabeko gizartea eta estatu komunista proposatze ditu (bigarren fasea).

- Erregimen batzuk ideologia batzutan oinarritzen dira. Batzuk euren burua legitimatzen zuten marxismoan jaioko balira bezala.
 - Sozialismoaren barruan, aldiz, haustura bat gertatu zen, eta bitan banatu ziren:
 - o Indarraren bitartez boterea lortzea planteatzen zutenak (Bolchevique)
 - o Sozialdemokrazia: armarik gabe boterea lortzea planteatzen zutenak (Menchevique)
- Mugimendu sozialistaren barruan eztabaida eta haustura asko gertatu ziren.

Estatu Soziala

Estatu soziala askatasun liberal eta demokratikoak mantentzen dituen da, tresna batzuk sartu eta estatu mota berri bat sortuz (ez da berria ez delako existitzen).

Munduko estatu guztiek izango dute ibilbide bat estatu sozialerantz.

Nola antolatzen da boterea estatu sozialean?

Estatu liberal demokratikoaren oinarritzko egitura mantenduko dute, hau da, zutabeak, botere banaketa, subiranotasunaren ideia, mantenduko dira.

Subiranotasunaren ideia ere mantenduko da; baina, izaera izango da mantenduko den bakarra. Subiranotasun nazionala mantenduko da, eta ez da subiranotasun popularririk emango. Subiranotasunak nazioaren ideia elitista bat du; nazioak hartzen ditu erabakiak, baina, ez du zertan mundu guztiak nazio izan. Subiranotasuna sufragio zentsitarioaren bitartez antolatzen zen. Nazioa existitzen zen, baina, nahikoa zen nazioko batzuen iritzia jakitzea. Botoa emateko mugak jarri ziren; muga ekonomikoak, ikasketak... Jabetzak dituztenak emango dute soilik bozka. Garai hartan etxeetako ugazabak ez ziren langileak soilik, diru nahikoa zuten euren jabetzak izateko.

Subiranotasun nazionala subiranotasun popular bihurtuko da. Hasiera batean gizon nazionalak eta gizon subiranoak izango dira. Hemen sortuko da sufragisten taldea, historiako lehen feministena. Hauek, herri osoak, baita emakumeek ere, bozkatzeko eskubidea dutela.

Nola sortzen da eskubide bat? Arazo bat identifikatu eta beste batzuek proposatutako hori babestuko dute. *Adb: emakumeak arazo bat identifikatu eta erreibindikatu egingo dute emakumearen askatasuna, hau da, feminista taldeak sortuko dira hori erreibindikatzeko*

Gizartea nola antolatu estatu sozialean ?

XIX. mendean gizarte estamantaletik gizarte klasistara pasako gara. Baina, estatua interklasista bihurtuko da; boterea aldatzearekin batera gizartea ere aldatuz joango da. Baina, gizarteak klasista izaten jarraituko du, ezaugarri berri batzuk hartuz.

Burgesiak eta langileriak klase nagusiak izaten jarraituko duten arren, euren arteko mugak murriztu egingo dira, mugikortasun gehiago emango da (klase batetik bestera

pasatzea errazagoa izango da, 'selfmade man' errazagoa) → mugikortasun soziala eta langileriaren egoera denbora guztian hobetuz joango da.

Gizarte sistema ekonomiarekin lotuta egongo da.

Nolakoa da ekonomia? Kapitalista

- Manchesterreko kapitalismoan enpresatako jabeak oso aberatsak ziren, eta langileek fabriketan egiten zuten lan (katean); bertako langileen egoera oso txarra (osasun baldintza eta baldintza ekonomiko oso txarrak)
- Fordismoa edo kapitalismo Fordista 20. hamarkadatik 60-70. hamarkadara bitartean eman zen. Kapitalen metaketak langilearen egoera hobetuko du, eta hau ona da horrela kapitalismoa akumulatzen joango delako. (Ford amerikar enpresaria, bera aberatsa izateko langileak ere egoera onean egon behar ziren; horrela, langilek kotxeak erosiko dituztelako, eta kotxe gehiago salduko dituelako). Kapitalismoak diru gehiago izateko askoz ere gizarte kopuru zabalago bati kontsumitzeko aukera zabaldu zion.
- Keynesianismoan (Keynes ekonomista britaniarra, kapitalismo Fordistan estatuak zein paper jokatu teorizatzen duena) kapitalismoa ziklikoa da, eta gorabehera handiak dituen noizbehinka krisi handiak sortzen ditu. Hortaz, kapitalismoa ezin da bere horretan utzi, eta estatuak interbenitu egin behar du.

Ongizate estatuan ekonomia ezin da bere kabuz utzi interbenitu beharra dago, eta horretarako estatuak helburu berriak (zerbitzuak eta arauak) erabiliko ditu. Hauek, konpetentzia sor dadin eramaten dira aurrera. Baina, hau hala izan ezean, estatuak interbenitu egingo du. Askotan, estatuak hartuko du bere gain ardura, eta estatua bera bihurtuko da enpresario. Sektore hauek (finantzaria, azpiegiturak,...) oso garrantzitsuak dira ekonomia baldintzatzen dutelako.

Estatu sozialaren fasean hauek izango dira estatuak hatuko dituen zeregin berriak. Ekonomia oso araututa egongo da, estatuak hainbat arau jarriko dituelako bai langile eta baita kontsumitzaileen eskubideak babesteko. Sektore batzuk (hezkuntza eta osasuna) ez ditu ekonomiak bere kabuz antolatu behar estatua antolatuko da horiek eramateaz. Baina, zerbitzu hauek hainbat tokitan ez dira publiko kontsideratzen, estatuak ez du ordaintzen bezeroa da dirua jartzen duena.

Helburu hauek nola lortzen ditu? Estatu soziala zergetan oinarritzen da; beraz, estatu batean zenbat eta zerga handiagoak izan orduan eta zerbitzu hobeak. Dirurik gabe ezin da politika publikorik egin; hortaz, diru asko behar du estatuak hau mantendu ahal izateko. Ongizate estatua da zergez arduratzen dena.

Ongizate estatuan liberalismoan baina gehiago exigitzen zaionez zerga gogorrek ezarri beharko ditu. Zerga sistemak oso garrantzitsuak dira, eta estatu bat ezagutu ahal izateko beharrezkoa da bere zerga sistema ezagutzea. Ongizate estatuak ez baitu ez kapitalismoa ez zerga sistema kentzen; baina, sektore publikoaren bitartez estatua orekatzen du.

Zerga motak:

- Zerga zuzenak, sektore publikoak zuzenean jasotzen ditu zergapekoen eskutik, pertsonarengan zuzenean eragite dute, eta bakoitzaren irabaziei eta ondarearen gainekoak dira. Zerga zuzenak dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Sozietateen gaineko Zerga (SZ) eta Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (EJZ).
- Zeharkako zergak, sektore publikoak ez ditu zuzenean jasotzen zergapekoaren eskutik, bitartekari bat dago. Produktu edo zerbitzu bat erostean ordaintzen diren zergak dira, eta ez diote bakoitzaren irabazi edo ondareari begiratzen. Zeharkako zerga da Balio erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

Zerga sistemak zenbat eta zerga zuzenenetan oinarrituta egon hobe, zerga zuzenak progresiboak direlako, eta hauek aberastasuna orekatzen dutelako. Zerga progresibo orokorra PFEZ da, eta zenbat eta zerga progresibo gehiago eduki estatua sozialagoa izango da.

Pertsonen gaineko soldataren bitartez egiten bada birbanaketa ondo eginda dago. Ongizate estatuak soldataren bitartez diru asko irabazten dutenetan oinarritzen dira. Enpresen irabaziak kontrolatzea pertsonenak kontrolatzea baino zailagoa da, soldata bat kontrolatzea errazagoa delako. Enpresetan zailagoa da langile bakoitzari ematen zaion dirua kontuan hartzea, kontratuetan ez delako egia guztia kontatzen. Bertan dabilen diru horri diru beltza deritzo.

Enpresa handietan ekonomia beltz handiagoa dago, estatuaren kontroletik kanpo geratzen den diru gehiago dagoelako. Enpresa hauek dirua 'paradisua fiskal' dutelako, hau da, zuk enpresa asko sortu baina ez duzu saltzen duzun hori legalki adierazten. Pertsona fisikoak enpresa edota sozietate bihurtzen dira, eta bere irabaziak desbideratu egiten ditu 'enpresa pantailen' bitartez. Horrela, dirua ekonomia beltzera pasa eta ez du zertan dena legalki adierazi.

Aberastasunaren birbanaketa, zergak handiak, zuzenak eta progresiboak badira birbanaketa handiagoa emango da. Gizartearen barruan ditu gehiago dutenek gehiago ordaintzen dutelako gertatuko da. Birbanaketak bi modutan funtzionatzen du:

- Zergen bitartez → asko irabazten dutenek zergetan ordaindu beharko dutelako, eta gutxi irabazten dutenek, berriz, ez dute zergarik ordaindu beharko, kopuru batetik behera ez baita zergarik ordaintzen.
- Laguntzen bitartez → badaude gauza batzuk estatuak mundu guztiari ematen ez dizkionak. Badaude laguntza batzuk prestazio sozialak direnak, behartsuenei soilik ematen zaizkienak. Desoreka orekatu egiten da prestazio sozialen bitartez. *Adb: unibertsitateko tasa pobre batek eta aberats batek berdin ordainduko du / herrian udal kiroledegi bat egin, eta pistinara joateko tasa bat ordaindu beharra; baina, tasa hori aberatsa izan edo pobre izan berdin-berdin ordaindu beharra dago.* Normalean aberatsek zerbitzu pribatuetara jotzeko joera dute, eta pobreek erabiltzen dituzte zerbitzu publikoak. Zerbitzu publikoak badu joera birbanatzaile bat hau erabiltzen duten gehienek diru gutxiago dutelako. Baina, hemen ez dago arazorik zerbitzu publikoak zein pribatuak onak direlako. Beste hainbat tokitan, aldiz, zerbitzu pribatuak publikoak baina askoz hobeak dira.

Hiritarra, gizabanakoa, estatu sozialean

Pixka bat alatu egiten da, gizabanakoa estatu sozialean, hiritarrak exigitu egin diezaioke estatuari gauzak eskaintzea, estatu horrek eskaini egin behar dizkit niri aukera horiek. Hiritarra ez da bakarrik legearen hartzaile bat, gauzak exigitu ditzake.

Berdintasuna konstituzio sozialean, kontutan hartzen dira baldintzapen legalak. Legea da diskriminazioa edo berdintasuna lortzeaz arduratzen dena. Estatuaren berdintasuna beste berdintasun bat da, honi berdintasun materiala deritzo, eta helburu bezala hartzen da. Berdintasunak estatua neutral mantentzen eta jokoaren arauak berdinak direla dio. *Karrera bat balitz, hasiera berdina, aukera berdinak izateaz gain, helmuga ere berdintasunean oinarrituta egoten datza.* Berdintasunak estatu sozialean bi zentzu ditu: batetik, onartu egiten da diskurtso formal hori; baina, bestalde, diskurtso formal hori orekatu egiten da berdintasun materialaren ideiarekin. Bi pertsonak helmuga berera iritsi ahal izateko laguntza ezberdinak behar dituzte; batzuk laguntza gehiago behar dute, eta beste batzuk, berriz, laguntza gutxiago. *Eskola publiko batean, irakasleak ikasle guztiei tratu bera eman; baina, beharizan berezia duten horiei laguntza eskainiko zaie.* Zerga sisteman, adibidez, zerga batzuetan mundu guztiak berdina ordaindu beharko du, eta beste zerga batzuetan, berriz, batzuk gehiago ordainduko dute, eta beste batzuk gutxiago, bakoitzaren klase eta diru mailaren arabera.

Noraino dira justuak politika positiboak? Zer baldintza izan behar du laguntza gehiago duenak justua izateko? Hainbat baldintza daude:

- Arrazoi justu bat egon behar da, laguntza horiek beharra duten horiei laguntzeko izan behar dira. Ez zaio berdintasunean dagoenari edota hobe dagoenari lagundu behar; hala, pribilegiatuak diren horiek oraindik pribilegio gehiago izango dituztelako.
- Garrantzitsua da azteratutadagoenari laguntzea. Ezin da edonor lagundu baina baldintza guztiak ez dira berdinak, laguntza horrek muga batzuk ditu. Laguntza hori proportzionala eta neutrua izan beharra da.

(Estatu liberala → berdintasun formala soilik)

Eskubideak estatu sozialean, gizabanakoaren edo herritarraren egoera ez da berdina. Herritarra ez da legearen hartzailea, beste egoera batean hartzen da. Honek badu aukera hiritarrari egin edo ez egiteko aukera emateko. Hiritarrak liberalismoko eskubideak mantentzen ditu, hau da, askatasunak mantendu egiten dira. Baina, hauei beste eskubide batzuk gehitzen zaizkie, eta aurreko eskubideen izaera eta edukiak aldatu egiten dira, nahiz eta aurreko izaera mantendu. Hauek dira sortuko diren eskubide berriak, hirugarren belaunaldiko eskubideak.

Belaunaldi mota ezberdinak daude:

- Lehen belaunaldiko eskubideak, eskubide zibilak, askatasunak ziren: niri desberdin adierazten utzi eta neure erabakiak neure kabuz eman. Hauek, liberalismoari jarraitzen diote, absolutismoaren kontrako borrokei.

- Bigarren belaunaldiko eskubideak eskubide politikoak dira, eta arte hartzearekin lotuta daude, hau da, erakundeen legitimazioarekin, pentsamendu demokratikotik eraten dute
- Hirugarren belaunaldiko eskubideak (eskubide berriak), eskubide sozioekonomiko eta kulturalak dira, eta pentsamendu sozialistatik eraten dute. Hauen ustez, berdintasunera jo beharra dago, eta estatuaren fase sozialarekin eta langile mugimenduaren eskariekin lotuta daude; baita langileen eskubideekin ere. Gizarte liberalean sortzen diren desorekak orekatzeko aukera ematen dute. Hauen oinarria langileen eskubideak dira, baina beste eskubide batzuk ere gehitzen joango zaizkie. Hainbat tresna dituzte: sindikatuak, negoziazio kolektiboa eta grebak. Tresna horiek ilegalak ziren, beraz, debekatuta zeuden. Baina, azkenean, legalak izatera pasako dira.

Zer da **negoziazio kolektiboa**?

XIX. mendean langileen eta enpresarioen arteko egoera erabat desorekatua zegoen. Liberalismoan tipikoa da askatasun kontraktuala. Askatasun kontraktualean adin nagusiko bik erabaki bat hartuz gero estatuak ez du zertan hor interbenitu. Askatasun kontraktualak 'contratos de adhesión' (o lo tomas o lo dejas) izenekoak onartzen ditu, eta honek alde egiteko askatasuna ematen du. Bakoitza bere baldintzak ezartzera badoa ez zaizkio onartuko, enpresarioa izango da baldintza horiek ezarriko dituen. Hortaz, ez gara banan-banan joango taldean joango gara, eta horrela lan baldintza hobekia lortuko ditugu. Honi hitzarmen kolektiboa deritzogu, hauek lege bat balitz bezala jokatzeko dute; nahiz eta, parlamentuak egin ez izan, langile taldeak dira hau egiteaz arduratuko direnak. Negoziazio kolektiboan, guk kontratu bat sinatzeko aukera dugu; baina, legeak kontratu bat sinatzeko askatasun hori mugatzen du. Konbenio kolektiboak oraindik muga gogoragoak ezarriko ditu.

Langile munduarekin lotutako eskubideen artean badira batzuk eskubide instrumental deritzenak. Hauen artean daude sindikatua, negoziazio kolektiboa eta greba.

Negoziazio kolektiboan, langile batek ez du bere kabuz negoziatzeko gaitasunik; beraz, langileak batu eta hala enpresarioen ordezkariekin negoziatu.

Langileen autodefentsarako eskubidea greba eskubidea da, eta honen helburua langileen eskubideak babestea da. Hasiera batean grebak delitu kontsideratu, eta gero despenalizatu ondoren eskubide modura adierazi.

Beste eskubide batzuk lortuko dira: oporrak izatekoa, gizarte segurantzaren izatea, langabeziarekiko babesa,... eta hauei eskubide sozioekonomiko eta kulturalak deritze. Lan harremanetan ahulen dagoen parte indartzeko balio dute. Hauen artean talderik gogorrena da langileena.

Baina badira beste talde batzuk ere, estatuaren barruan kaltetuen daudenak babesteko dituztenak. Eskubide sozioekonomikoak beste eskubide batzuk baina indartsuagoak dira, eskubide batzuk indarra izateko estatuak ondo funtzionatzea behar baita. Askatasuna bermatzeko estatuak ez du gauza handirik egin behar, egin beharrekoa egiten uztea da. Egiteko estatuak ez du dirurik gastatu behar.

Eskubide sozialak badira askatasun, greba egiteko askatasuna askatasun hutsa baita. Eskubide sozioekonomiko gehienak prestazioak dira, ez da nahikoa paper baten idaztea. Hauek nolabaiteko eragina izan dezaten estatuak dirua gastatu beharra du. Adibidez, osasunerako eskubidea dutenean estatuak zerbait egin beharra du.

Eskubide batzuk askatasuna bakarrik dira, eta beste eskubide batzuk, berriz, prestazioak dira. Eskubide sozialak ez dira oso eraginkorrak, neurri handi batean estatuak, botere publikoek, dituzten errekurtsioengatik baldintzatuta baitaude. Hauek estatuaren politikak, politika publikoak, zehazteko behar dituzte. Eskubide hauek eskubide mugatuagoak izaten dira, epaile batek mugatuak.

Askatasunak eskubideak baina errazagoak dira; baina, eskubide sozioekonomikoen artean badira askatasunak, greba esaterako. Gehienetan eskubide sozialak prestazioekin lotuta daude, eta estatuak dirua gastatu beharra du. Zenbat eta estatuak diru gehiago gastatu politika hori seguruagoa izango da. Hortaz, eskubide batzuk gogorak dira, eta beste batzuk bigunak. *Batzuetan pertsona batzuei baldintza batzuk bete ez arren, ez zaizkio lege guztiak aplikatzen.* Eskubide sozialek normalean dirua behar dute beteak izan daitezen.

Eskubide berriak sortzeaz gain beste batzuek izaera ere aldatu egiten da. Eskubide klasikoak, liberalismoaren eskubideak eta partizipaziorako eskubideak mantendu egiten dira; baina, euren izaera aldatzen da.

Estatu liberalean garrantzitsuena interes partikularra da, hau da, eskubide bat ematen bazait nire interesa babesteko eskubidea izango da. Eskubide guztiek bi helburu/interes ezberdin dituzte. Liberalismoan badugu interes partikularra babesten duen interes bat. Baina, estatu sozialean hori aldatu egiten da, eta interes partikularra eta funtzio soziala bereiziko dira. Estatuak bi interes hauek babestu beharra ditu.

Estatua soziala denez estatuaren barruan denak du helburu sozial bat, hau da, gizarte justu baterako joera du. Estatuaren erabilera baldintzatzen du horrek. Estatuaren betebeharra ez da norbanakoaren eskubidea babestea soilik, norberaren eta taldearen interesak bateratu beharra dira. *Jabetza pribatuan ugazabak estatuarengandik babesten du bere interesa, hau da, estatuak ez diezadala nirea dena kendu.* Jabetza ia mugagabea da, ikutezina. Neure erabakiak neuk hartzen ditut inork ez du horietan parte hartuko. Jada ez dago interes partikularrik jokoan jabetza partikularrentzako eta taldearentzako orekan egon behar da.

Jabego batek ze funtzio sozial du? *Arropa batek ze interes du gizartearentzat?* Jabego bat interes partikular izan daiteke %100ean, eta ez du inolako interes sozialik. *Babestua den baserri batean ezin duzu zeuk nahi duzuna egin, ezin da bota, erre, leiho berri bat zabaldu...* Gizarteak badu interes bat, non, gizabanakoak ezin dituen bere nahiak bete. Norbanakoaren interesaren eta interes kolektiboaren artean badago gatazka bat.

Ustelkeria politikoaren zatirik garrantzitsuena urbanismoa da. Herri batean lurrak mugatuak dira, Gipuzkoa eta Bizkaian oraindik mugatuagoa mendiak daudelako. Herriko udalak, herria politikoki bideratzen duenak, herrikoen interesen arabera erabakiak hartu behar ditu. Udalak badu non edifikatu daitekeen eta non ez esateko eskubidea. Udala dirua sortzeko duen makina bat da urbanismoa. Udalak dedikatu beharko liratekenera

dedikatuko balira gizarte osoaren interesak babestuko lirateke. Plusbalia bat sortzen da eta hori interes publikorako izan beharko litzateke eta ez interes pribaturako. Kiroldegi bat egin nai dute, eta ez dago horretarako lekurik. Baina, egin nahi duten lekuan baserri bat dago, eta ez dute saldu nahi. Jabeek dirua eskatzen dute, eta gero eta diru gehiago eskatu bertan egingo dutena garestiagoa izango da. Terreno bat ez bada edifikablea merkeagoa da, eta edifikablea bada balio handiago du. Udalak herriaren interesak babesten dituzenez, non edifikatu daitekeen eta non ez adierazten du. Gaur egungo urbanismoaren funtzioa: teoriarik udalak behar diren beharrak begiratu eta lurra merke erosi beharko litzuzke, eta ondoren edifikable bihurtu. Herri batean terreno interesgarriak dituztenek eta konstruktoreak interesak lortuko dituzte etxebizitzaren politikan. Honek, egiten diren pisuak garestiagoak izatea eragiten du. Pisu bat erostean ez duzu pisua ordaintzen pisua egiteko terrenoa baizik.

Eskubide pribatu eta politikoa artean talka bat dago, eta bakoitzak bere interesen arabera jokatu du. Horregatik, epaile batek bere interesen arabera jokatu du. Interes publikoaren ondorioz, interes pribatua galtzera ere iritsi daiteke. Jabetza batzuei muga sendoagoak ezartzen zaizkie, batez ere urbanistikoei.

Gaur egun, jabetzak ez du partikularraren interesa bakarrik babesten interes publikoa baizik.

BOTEREA ETA GIZARTE GLOBALIZAZIOAN

5.GAIA: ESTATU SOZIALAREN KRISIA

Sarrera

Orain arte ikusitakoa XX. mendean zehar eman zen fase historiko bat definitzeko kontzeptua izan da. Fase historiko horrek, garapen maila sos altua eta oreka lortu zituen Europa Iparraldean.

80. hamarkadan estatu soziala krisian sartuko da, eta haren ezaugarri batzuk mantentzen diren arren, bere zutabeak bertan behera geratuko dira, hau da, gizarte ituna edo pakto soziala hautsi zen.

Krisiaren arrazoiak:

Estatu sozialaren krisia hainbat arrazoiengatik izan zen, horien arteko bi arrazoi nagusi:

- Sobiet Batasunaren erortzeak, estatu komunisten erortzea:
Batzuk ez dira erortzen; baina, erortzen ez diren horiek zeharo kapitalista bihurtuko dira. XX. mendean mundua bi bloketan (komunista eta kapitalista) banatuta zegoen. Estatu kapitalistetan iraultza politikoak egin eta beste blokerak pasatzeko arriskua dago; beraz, honek kapitalistek komunistei beldurra izatea eragiten du.
- Globalizazioa: fenomeno tekniko bat da, eboluzio teknikoaren ondorioz mundua txikiago dela pentsatzen duena.
 - Mundua antzina oso handia zen, eta garraioen aurrerapenarekin mugak desegin egingo dira. Ondorioz, mundua globala bihurtuko da, eta kanpokoak diren produktu eta albisteak eskura ditugu. Globalizazioa prozesu zabal bat da, eta ez da denbora zehatz batea gertatzen. Beti existitu izan da, munduan beti izan dira prozesu globalak; baina, globalizazioa zerbait sakonagoa denean aipatzen da, eta XX. mendearen amaieran ikusiko da.
 - Globalizazioa aurrerapen teknologikoekin erabat lotuta dago. Bereziki bi teknologia ezberdinekin: batetik sareak (interneta, konekzioa...) eta bestetik garraioa. Hauek, mundua txikiago bihurtuko dute, mundua eskurago izango dugu. Lehen eskuragarria ez zena egun munduko edozein lekutan da eskuragarri.

Zeregin alternatiborik ez dagoenean ez dago ezer lortzerik. Bertan, desregularizazioa sortuko da, ez daukagu zertan arauak errespetatu.

Globalizazioaren ondorioz, lehen eskuragarria ez zena egun munduko edozein lekutan dago eskuragarri. Honen ondorioz mundua txikiagoa eta interdependienteagoa da. Interdependientea dela diogunean munduko edozer lor dezakegunaz hari gara. Mundua txikia denez denok bizi gara herri global batean (aldea globala).

Aldea globala MarxalMaldujanen ideia bat da, non, gutako bakoitza herritxo batean bizi arren, mundu guztiarekin lotuta gaudela adierazten duen. Mundua ez dago deartamentu estankoetan banatuta. Lehen herri bakoitza isla bat zen, eta beste herrietako gauza garrantzitsuenez enteratzen zen. Herrien arteko desberdintasuna nabariagoa zen.

Eraginak edo ondorioak

Bi prozesu hauek aldaketa ideologiko bat sortuko dute.

Neoliberalismoa izango da fenomeno horietako bat. XX. mendetik aurrera indartu eta iraultza neokontserbadoarea sortuko da. Bertan, pentsamendu neoliberalak indartuko da. Hitz hau fenomeno ezberdin askori izena emateko erabiltzen da. Neoliberalismoarekin gauza asko esaten ditugu eta askotan aipatzen ditugun kontzeptu horietako asko ez dira ez liberalak ezta neoliberalak ere. *Neoliberalak den politika bat; baina liberalak ez dena: bankuan erreskateak ez du liberalismoarekin zerikusik. Liberalek diotelako estatuak ez duela ekonomian eskurik hartu behar.*

Liberalismoa eta neoliberalismoa aurkako kontzeptuak dira. Batek estatuaren parte hartzea defendatzen duelako eta besteak, berriz, ez. Neoliberalismoaren barnean badira neoliberalismoa diren gauzak baina liberalismo eta antiliberalismoak direnak ere. Neoliberalismoa deitzen zaio ez delako absolutismoaren aurka joaten estatu sozialaren kontra baizik, eskubide sozialen eta arautzearen aurka baizik. Horregatik, neoliberalismoa desregulazioaren ideiarekin lotuta dago, hau da, arauak murriztearekin, batez ere, estatu sozialaren oinarri diren arauak kentzearekin. Honen arrazoia estatu soziala eta zerbitzu publikoa kaltegarria bihurtu dela uste izatea da.

Zegatik murriztu behar dira gauza guzti hauek planteamendu neoliberalen? Neurri hauek hartzen dituzten estatuaren ekonomiak ez dira ezer. Estatu batek eskubide asko babestu eta arau batzuk jartzen baditu kompetentziaren aurrean kaltetua izango zara, herrialdeak beste herrialde batzuekin lehiatu daudelako. Hau da neoliberalismoaren justifikazioa. *Estatu batek zerga berriak jarritz gero, bertan dituzten hainbat enpresa galduko ditu, beste herrialde batera mugituko direlako. Beraz, lehiakortasuna galduko dugu.*

Errealitatea da mundua gero eta interdependienteagoa dela. Aurretik aipatutako hauek bete ezean herrialdea erori egingo da kompetentziek gure baliabide guztiak kenduko dizkigutelako. Beraz, gainerako herrialdeei ere begiratu beharra dago.

Neoliberalismoak dio estatuak eskubide sakonegiak egin dituela, zerbitzu publikoetan asko gastatzen duela, ez dela efizientea, estatuak gutxiago gastatu behar duela, zergak txikiagoak izan behar direla, arau gutxiago ezarri behar dituela... Beraz, hauek malgutasuna bultzatzen dute, eta estatu sozialaren arauak, berriz, dirua aldeginarazten dute.

Estatuaren eta merkatuaren arteko harreman tradizionala hautsi egiten da. Orain arte estatu bakoitzean behar dena produzitzen da. Tradizionalki hau horrela izan den arren, egun hau galdu egin da. Estatuak muga berdinetan jarraitzen du; baina, merkatua globala bihurtu da.

Ondorioz, produkzioak eta kontsumoak kanpoko baldintzapenak ditu. Beraz, merkatu bakoitza beste merkatuengatik dependienteago bihurtu da.

Ekonomia globala bihurtzen ari da, baina osorik globalizatu dena kapitalaren merkatua da. Diruak orain arte aberririk izan ez badu egun gutxiago, globala da eta libreki mugatzen da munduan zehar. Baina, lana eta langileak ez dira globalizatu, pertsonak ez dute edozein lekutan egoitza hartzeko eskubiderik. Hauek, loturak dituzte estatuarekiko. (Dirua mugarik ez / lanak baditu mugak)

Honek estatuak lehengoan jarraitzea eta merkatua globalizatzea dakar, eta bi ondorio nagusi izango ditu:

- Desregularizazioa → ea zein estatuk murrizte dituen gehiago baldintzapen sozialak. Merkatuen arteko lehia sortu, eta merkatuen arteko lehia globalak konpetentzia globala sortuko du. Mundu guztiko enpresak konpetentzia hasiko dute bai berena babesteko eta kanpoko enpresak erakartzeko. Erakarpen hori zerga txikiagoak ezarriz eta langileen eta kontsumitzaileek eskubideak gutxituz eta lana konpetitiboagoa eginez lortuko da.
Dumping soziala (competenciasocial a la baja) → desregularizazioaren bitartez kapitalak erakartzeari deritzo.
- Deslokalizazioa → estatua ez bada duen kapitala mantentzeko gai enpresek dauden lekutik alde egiten dute, leku lehiakorragoetara alde egingo dute. Prozesu hau berez gertatzen ari da, eta badago hau berez gerta dadin joera bat. Liberalismoak joera hau exageratzen du, badaudelako berez joan daitezken enpresa batzuk. Baina, badira deslokalizatzea zaila den enpresa batzuk ere. Enpresa guztiak soldatak baxuak dituztenen eskura joango balira
Euskal Herrian dauden enpresak Extremadurara mugituko balira soldatak baxuagoak lirateke.

6. GAIA: GLOBALIZAZIO PROZESUA: EZAUGARRIAK

Globalizazioa ez da gertakizun baizik prozesu bat. Beraz, ezin da zehatz deskribatu globalizazioak zertan datzan. Zer nolako eraginak izango dituen jakiteko gauzak lertu beharra dira; hortaz, barrutik bizi dugunez ezin

Globalizazioak zer eragin du politikan

Bloke komunista erortzeak estatu soziala eta estatua bera krisian jartzen du.

Arrazoia:

- Mugak

Estatuak neurri bateko subiranotasuna duen lurralde batean osatuta daude, eta globalizazioak frontierak horren eraginkorrak izan ez daitezen eragiten du.

Erreakzio gisan estatuak frontera sendo eta altuagoak jartzen saiatu arren, praktikan ez da posible estatuak bere gain zeukan boterea mantentzea.

- Ondorioz, mugek indarra galtzen dute, eta estatuak bere independentziaren zati handi bat galtzen du.

Estatuak teorian independienteak dira; baina praktikan estatuak hartzen dituen erabakiez baldintzatuta dago. Zenbat eta zor handiagoak independentzia teoriko hori baldintzatuta dago.

Estatuak erabakiak hartzeko aukera gero eta mugatuagoa da, eta hau estatuaren interdependentzia bat bihurtzen ari da. Mota askotako harremanak sendotuz doazelako eta estatua boterea galtzen joango da.

Bertan, badago merkatuen globalizazioa, jada estatuan kontsumitzen den gehiena ez da estatuan bertan produzitzen. Estatuaren arteko mugak handitu eta haien arteko interdependentzia handitu. Nahiz eta, estatuak mugak, mantentzen saiatu langileentzat eta mugarik ez kapitalarentzat, muga horiek bigunduz joango dira.

Estatuaren boterea ere mugatuz doa, kontrolak estatuak mugak zituenean balio zuen; baina, gero eta muga gutxiago kontrol hori zailagoa izango da.

Alderdi politikoen sistemarengan globalizazioaren eragina:

- Estatu sozialaren krisarekin batera pentsamendu neoliberalaren krisi bat etorriko da, iraultza kontserbadorearekin batera.
Langile mugimenduekin lotutako alderdiek, ezkertiarrek, beherakada bat izango dute, eta neoliberalismoaren pentsamenduak handitzen joango dira.
- Sistema ideologikoa kaotikoagoa bihurtuko da, eta toki batzuetan alderdi politiko tradizionalak indarra galtzen joango dira, beste alderdi batzuk indatuko diren bitartean.
- Populismo gisa ezagutzen dugun hori ere indartuz joango da, eta baita alderdi ultraeskuindarrak ere.

Politikan estatu soziala, estatua bera eta alderdia bera ere krisian. Hau litzateke gutxi gorabehera egoera.

Globalizazioaren eragina ekonomian

Orain arte estatu mailako merkaturak globalizatuz joango da, baina, neurri batzuetan bakarrik. Ekonomia globalak faktore produktiboak mundu mailan antolatzen ditu, eta erregioetan faktore eta produkzio desberdinak antolatzen ditu.

- Bertan, merkatuak berrantolatuko dira, gauza batzuk, balio gehitu txikia dutenak eta lan esku asko behera dutenak, merkatu Asiatikoetara joango direlarik. European bertan ere izan da merkatuaren berrantolaketa hori, Europak berak hainbat berrantolaketa izango ditu.

Merkatu globalak ekonomian dituen eraginak:

- Deslokalizazioa, produkzioak soldata baxuak dituzten lekuetara joko du.

- Desregulazioa, lehia ekonomikoak 'dumping soziala' eragingo du (konpetentzia bat sortze beste bat sortu, ea zenek merkeago eskaini) izango dira.

Deslokalizazioa gerta ez dadin, gaur egun, estatuek desregulazioa ezartzen dute, askatasun gehiago ematen diete kapitalei. Interbentzio ekonomikoa mugatu, sektore publikoa ahuldu, zerbitzu publikoak murriztu egiten dira.

Eta bestalde, nahiz eta teorian eta praktikan neoliberalak izan ez dira praktika liberalak. Estatuak ekonomian interbenitzen jarraituko dute erraztasun fiskalak emanik, bestela aberatsak beste leku batzuetara joango direlako edo hori egitearen itxurak egingo dituztelako.

Azkenik, enpresak sistema ekonomiko finantzialera joko du, eta dirua ez da kaltetuenaren alde emango baizik eta bankaren alde. *Azken krisian momentu batean bankuak eta sektore finantziarioak erabiltzen dituen trenak krisi finantzario bat sortu, eta estatuak bankei lagundu.*

Teoria neoliberalak indartuz joango dira finantzak handitzeko eta kapitalismo finantziarioari emango zaio hasiera, non, ekonomia zati handiena jada ez den produktiboa. Munduan irabazten den diru erdia ez da produzituz irabazten baizik eta espekulatuz. Ekonomia zati handiena ez dator produktioetik baizik eta diru eduki eta mugizetik.

Honekin lotuta, paradisua fiskalak indartu egingo dira, hau da, ateratzen den dirua estatuaren kontrolatik joan egingo da, lehen estatuak kontrolatzen zuten dirua eta egun gutxiago kontrolatuko da.

Honen bitartez ekonomia zati handi bat beltza bihurtuko da; honi, batzuek ekonomia pirata deitzen diote, arauz kanpoko ekonomia bat estatuaren kontrolatik izango ez duena, eta estatuaren funtzionamendua baldintzatuko duena. Estatuak hartuko dituzten neurriak ekonomia desarautu horrek egiten dituen proposamenetatik hartuko izango dira.

Ekonomia autonomizatuz doa eta denborarekin helburu bakarra izango du. Ekonomia ez dago gizakion beharrezkoetarako baizik eta, gu gaude, gizakiok, ekonomia beharrezkoetarako.

- Diskurtso ekonomiko hegemonikoa. Ekonomia ez da helburu sozialak eta politikoak lortzeko, bere helburu propioak betetzeko baizik.
- Diskurtso ekonomiko fundamentalistak. Ekonomia indartsuago bat egotea da helburu nagusi, eta horretarako gizarteak modu jain batera antolatu beharra dago, dena diruaren interesean antolatu behar da. Diskurtso hau komunikabide eta ekonomia fakultateen bitartez indartuz joango da.
 - o Fundamentalismo ekonomikoaren helburu nagusia hazkundera da, nahiz eta horretarako hurrengo belaunaldien interesak sakrifikatu. Ekonomia hori bizitzaren mantentzearen esanetara gon beharko litzateke. Badago munduko egungo marxan jarraitu ezin duenaren teoria bat.

Globalizazioaren eragina gizartean eta gizarte bizitzan

Eragin bikoitza:

- Interkonexio gehiago. Jendea konektatuta egongo da, gizarte osoa sarean egongo da. Sareak interdependentzia areagotzea dakar, pertsona bat saretik ateraz gero umezurtz geratuko da (ez gara bertatik kanpo egoteko gai).

Honek, arlo guztietan ondorioak ditu gizarte harremanak aldatu egiten direlako. Nahiz eta teorian jendearekin harremanetan egon eta denbora guztian konpainia izan, ez dugu gure buruarekin harremanetan egoteko, denbora guztian besteekiko harremanak eta gauzak hartzen ditugu.

- Gizarte indibidualistago bat ere sortzen du, konexioa badago; baina, dena sarearen bitartekoak dira ez dago harreman presentzialik. *Askotan talde bat batu eta ez dituzte euren arazoak konpontzen sarean dagoena komentatzen dute.*

Bizitzaren merkantilizazioa:

Gizakiok gero eta kontsumitzaileagoak gara. Antzinako gizartea kontsumoaren esparrua txikiago zen, gero eta aurrerago kontsumoak espazio handiago du.

Gero eta denbora gehiago dedikatzen dugu kontsumora beste ekintzetara baino. Denbora librea gehiena egun kontsumora dedikatzen da edo kontsumoarekin lotuta dauden ekintzetara. Egun, gero eta zentro komertzial gehiago eta handiagoak daude.

Gizartea gero eta indibidualistagoa da; baina, pribatutasunak behera egin du. Hau da, gero eta gehiago dira sarean dena zintzilikatzen dutenak. Gure gustuak, esandakoa, gorputza,... dena dago sarean, eta dena publiko. Garai batean, dena zegoen besteengandik gordeta, baina, egun denok denon edozer jakin dezakegu.

Globalizazioaren eragina kulturen

Edozein mugimendu kulturek eragina du mundu osoan, kulturen arteko harremanak gero eta globalagoak dira. Kultura lehen lokala zen; baina, gaur egun kultura globala bihurtzen ari da.

Guk kontsumitzen dugun kultura ez da leku jakin batean sortzen gero eta modu globalagoan sortua da. Ez da kultura globala gugana datorrena bakarrik kultura lokala ere globalizatuz doa.

Sareak kulturak bisibleagoak egiten ditu, eta kulturatik entretenimendura pasatzen ari gara. Kultura bezala kontsideratzen diren gauza asko ez dira bakarrik kultura askotan entretenimendu hutsa dira.

Gaur egun, dena kontsideratzen da kultura; baina, berez kultura gure buru edo bihotza aldatzen duen zerbait izan beharko litzateke, eta ez denbora pasa hutsa.

Mundu homogeenagoa bihurtzen ari da, gizarteak eta kultura homogeenagoak bihurtzen ari dira. Jantzkerak, hitz egiteko modua, musika,... homogenizatuz doa neurri

batean. Beste ikuspuntu batetik, kultura gero eta heterogeneoagoa, desberdinagoa eta pluralagoa bihurtzen ari da.

Hauek dira globalizazioak dituen ezaugarriak. Zerbait dagoenean beti egongo da alterglobalizazio bat, hau planteatzeko beste modu bat. Badaude ezaugarri hauen aurkako mugimenduak ere.

7. GAIA: GLOBALIZAZIOA INTERNAZIONALIZAZIO BEZALA. BOTERE SUPRANAZIONALAREN SORRERA

Estatuak tradizionalki zeukan boterea beste erakunde batzuetara joango da, eta estatua hustu egingo da. Hustearen beste arrazoi bat bere boterea desnazionalizatu edo pribatizatu egiten delako, hau da, estatuarena zen botere zati handi bat erakunde publikoetatik pribatuetara joango da, botere ekonomikoetara. Gainera, estatuaren erabakiak erabaki publiko bihurtuko dira.

Bi prozesu hauek atal ezberdinetan ikusiko ditugu.

1. Estatuaren botere galtzea nazioarteko erakundeetara bideratua

Gaur egungo estatuak estatu soberanoak dira, hau da, gaur egun konbentzionalki onartuta dago estatu bakoitza bere mugen barruan nagusi dela, eta bere mugen barruan hartutako erabakiak berak hatzen dituela. Beste edozein estatuk ezin du intebentitu beste estatu baten esparruan. Subiranotasuna osoa eta formala da; baina, subiranoa dela diogunean ez dugu erabakiak baldintzatuak direla esaten. Estatu batzuk indartsuagoak direnez, antolaketa garatuagoa dutenez aukera gehiago dituzte erabaki horiek hartzeko. Baina, historikoki esaten da estatu baten barne arazoetan beste estatuak ezin direla sartu. Honez gain, estatuaren gain ezer ez dagoela esaten dute. Estatu bakoitzak askatasuna du bere esparruan bera uste duena ezarri eta inposatzeko.

Nazioarteko zuzenbidea sortu baina lehen ez zen estatuaren gain ezer existitzen. Hau sortu arte erresumen arteko harremanak indarrean oinarritutako harremanak ziren, estatuak indarraren bitartez inposatzen baitziren. Estatuaren subiranotasuna ez zuen inongo mugarik.

Nola sortu nazioarteko zuzenbidea?

Lehen aldiz, XVI. mendean hasi ziren estatuaren botereak mugak izan behar zituela planteatzen. Honez gain, egun, nahiko onartuta dagoen legeen betebeharra noraino doan planteatzen hasi ziren. Orain arte inork ez zuen legeen legitimitatearen arazorik aipatu. Orain arte legea aginte zen eta errespetatu egin beharra zegoen. Hemendik aurrera legea noraino bete behar den, legea legitimoa ez bada noraino bete eta estatuaren askatasunak zalntzan jartzen hasi ziren

Espainiako Teologo Juristen Eskola sortuko da, eta bertakoak dira Bartolome de las Casas, Francisco de Vitoria... teologoak. Hauek hasiko dira legeak beti bete behar diren edo estatuak dioena bete behar den kuestionatzen hasiko direnak.

Hau kolonizazioa hasi zenean gertatu zen, eta hemen eztabaidak hasi ziren ia hiritarrak animalia ziren edo ez erabakitzeko.

Astakeria horien kontra Teologoek Juristen Eskola sortu zen, non, hainbat teologok botere soberanoa zalantzan jartzeari ekin zioten.

- ‘Erregeen esana zalantzan jarri behar al da?’
- ‘Legeak ilegítimoak izan daitezke’
- Legeak ez betetzea erlijioak justifikatzen zuen, eta muturreko kasuetan legea zeharo larria denean soberanoa hiltzeko aukera planteatuko dute (tiranizidioa).

Ez da lege bakarra existitzen bi motatako legeak daude:

- Lege positiboa → legeak erregeek ezarriak dira, eta bete egin behar dira hala esaten dutelako. Hauek, lege naturalarekin bateraezinak badira legitimitate arazo bat sortzen da, eta txokea oso fuertea bada lege positiboa ez betetzera iritsi gaitzke.
- Lege naturala → jaungoikoaren legeak, jainkoak sortu baditu zerbaitegatik sortuko zituen. Biblian agertzen diren portaera eta gauzak egiteko moduak dira. Hauen ustez erregearen gain dago jaungoikoa, eta honen gainean ez dago inor.

Honen ondorioz ere sortu da nazioarteko zuzenbidea, hemen hasten dira lehen aldiz teorizatzen estatuaren legeen gain beste lege batzuk ere egon beharko liratekela. Beraz, hemen hasten da nazioarteko zuzenbidearen teorizazioa.

Hurrengo mendeetan mundua lege natural bat denaren, eta estatuaren gainetik dagoenaren ideia teorizatzen joan zen. Guzti hau teorian planteatzen da, baina, praktikan oso motel joan da mugitzen. Gaur egun, nazioarteko zuzenbidearen eragina oso txikia da, mugak oso formalak dira.

Nola hasi zen *Nazioarteko Zuzenbidea*?

Ohituretatik abiatuta: Nazioarteko zuzenbidea ohitura batzuk ezarriz hasi zen eta ohitura horiek lege bilakatzen joan ziren nazioarteko hitzarmen eta itunetan.

Nazioarteko zuzenbidea oso zuzenbide primitiboa da. Antzina, errege batek beste norbait bidaltzen zuen bere izenean bere mezuak zabaltzeko. Baina, denborarekin estatuak onartuz joan ziren beste estatuaren erabakiak. Orduan, denborarekin mezulari horiek beste estatuaren enbaxadore bihurtu ziren, denborarekin enbaxadak errespetatu joan ziren.

Nazioarteko zuzenbidea gaur egun oso ahula da, eta ez da estatuaren zuzenbidea bezalakoa. Estatuaren zuzenbidearen legeak inposatu egiten dira, eta nazioarteko legeak, berriz, malguagoak dira. Ez du estatuaren kontra inposatzeko tresna sendorik. Nazioarteko legea bi iturburutan oinarritzen da: itunak eta ohiturak. Nazioarteko zuzenbideko arau batzuk existitzen dira; baina, ahulak dira. Estatu guztiak enbaxadak ezartzen hasi ziren, eta hauei errespetua zor zieten gainerakoek. Honen ondorioz sortu zen zuzenbide diplomatikoa.

Enbaxadan daudenak beste lurralde batean egon arren, beren lurraldean baleudeke jokatzeko dute.

Beste arau batzuk nazioarteko itunen bitartez sortzen dira, hau da, estatuak nahi duena egiten du, baina, itunen bitartez obligazioak onartzen dituzte beste herrialdeekiko. Nazioarteko zuzenbidea existitzen da, baina, ez da sendoa.

Legeak ez datoz soilik ohituretatik, hitzarmenetatik (kontratuetatik) ere sor daitezke. Lege asko trukeen bidez sortzen dira, beraz, legeak ohituretatik eta hitzarmenetatik datoz. Antzinako zuzenbidea kontratuetatik eta ohituretatik dator.

Nazioarteko zuzenbidea arau primitiboetan oinarritzen da. Beraz, estatuak dituzten arauak ez datoz legeetatik ohitura eta hitzarmenetatik baizik. Primitiboak dira. Betebeharreko legeak dira, baina, hauek betetzeko tresnak ez dira sendoak. Nazioarteko legeak ez dute indarririk, oso ahulak dira, estatuaren legeak, berriz, oso sendoak dira legearen atzean beti indarraren erabileraren mehatxua dagoelako. Nazioarteko zuzenbideak duen indarraren erabileraren mehatxua oso ahula da, nazioarteko zuzenbideak ez duelako ez ejertzito, ez polizia, ez epailerik, ohiturak eta nazioarteko hitzarmenak soilik ditu.

Nazioarteko mailan estatua ez dago besteekiko konportamentuetara behartuta. Estatu batek zenbat eta hitzarmen gehiago sinatu obligazioa gehiago izango ditu. Hortaz, nazioarteko zuzenbidea errespetatzen baduzu, hau da, estatuarekiko oso konprometitua bazara, ez duzu zuk nahi duzun nahia beteko, ez duzu obligaziorik zeureganatuko. Barruko estatuarekin alderatuz kanpoaldeko estatuak oso ahulak dira. Nazioarteko zuzenbidea neurri batean betetzen da.

Hitzarmen bat egin eta estatu batek bere betebeharra betetzen ez badu bi herrialdeen arteko gatazka bat sortuko da, eta elkarren arteko konfiantza galduko da. Beraz, bi estatu horien arteko harremana ahulagoa izango da.

Nazioarteko zuzenbidea sortzen ari den arren, oraindik bere inposatze maila oso baxua da, eta askotan ez du eraginik izango.

Nazio Batuen Erakundea (NBE)

Nazio Batuak munduaren historian egon diren lehen agente globala dira, eta I. eta II. Mundu Gerraren artean existitu zen Nazioen Elkartea.

Mundu Gerra amaituta eta izan zituen kalte eta ondorioak haintzat hartuta, estatuak beren gain egongo zen erakunde bat sortzea erabaki zuten. Horela, boterea murriztu eta berriz ere antzeko txikiziorik gerta ez zedin bermatzearen. Bertako gehienak Europako estatuak izan ziren, eta ez zuen eragin handirik izan.

Borondate handiz sortu zen arren, porrot bat izan zen. Nazioarteko Elkartean porrot egin zuen, eta II. Mundu Gerra hasia zegoen. Bertan, Nazioen Elkartea galtzera iritsi ziren.

Baina, Nazio Batuen Erakundea sortu zuten, aurrekoaren helburu berarekin. Honek, izaera globalago bat izango du, ez dira soilik Europarrak izango. Hasiera batean denak egon ez arren, azkenean ia denek lortu zuten bertan sartzea.

Hauen helburu nagusia III. Mundu Gerra bat ez egotea eta euren arteko mugen harremanetan erlazio hobeak izatea zen.

NBERen sorrera beste testuinguru baten baitan ulertu beharra dago:

Esan bezala, II.MGren ostean sortu zen. Horrela, honen oinarriak Gerran garaile izan zenak finkatu zituen:

- Alemania, Italia eta Japonia galtzaile
- Gailendutakoek, estatu galtzaileen aurka jo zuten oinarriak finkatzerakoan

Horrela, NBERen alde on eta akatsak garai historiko horren harira datos, Hau da, sorreratik dago baldintzatuta bere oinarriak potentzia garaileek ezarritakoak baitira.

NBERen baitako funtzionamendua:

Nazio Batuak oreka batean oinarritzen dira, denek dutelako botere eskubidea; baina, badira pribilegioak dituzten bost estatu: Frantzia, Errusia, Txina, AEB eta Britainia Handia.

- Botoa estatu guztiek duten arren, betoa ez dute guztiek bost estatu hauek soilik izango dute, hau da, nahiz eta gehingoak nahi izan hauek beren ezezko edota baiezkoa adierazteko eskubidea dute. (Hona hemen NBERen baitako printzipio antidemokratiko bat)
 - Almaniaren kasua: Europako estatu boteretsuena den arren, Nazio Batuek erakundeko bost pribilegiatuen artean ez du botererik izango. Ez baititu Nazio Batuetan bere erabakiak hartuko TROIKA izango da bere laguntzaile edota bitartekari.

Honek, gaur egun daukagun mapa geopolitiko sortuko du. Egundago oreka geopolitiko bat, non, bost estatu hauek nagusitasuna duten..

III. Mundu Gerra bat ekiditea lortu dute; baina, badira tokian tokiko gerrak. Geopolitikan egundago estatuak ez dira gerran sartuko eta zerbait mantendu bitartean ez da erasotua izango. Estatu bat arriskuan egongo da lagunak galtzean, eta galdu behar ez diren lagunak bost horiek dira.

Nazio Batuen Erakundearen helburuak

- Estatuaren arteko kooperazioa, hau da, estatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea.
- Estatuaren artean bakea mantentzea, hau da, gerrarik ez izatea. Hau izango litzateke Nazio Batuen helburu nagusia.
 - Honetarako sistema bat izango du, eta horri mugen ukiezintasunaren printzipioa deritza, hau da, inor ezin da beste estatu baten arazo domestikoetan sartu.
 - Baina, printzipio hau ez da absolutua mugatuta dago, estatuaren subiranotasuna mugatzen duelako.

- Hortaz, honetan oinarritzen da gerraren debekua, arazoak modu baketsuan konpondu behar direlako. Honetarako Nazio Batuek tresna batzuk sortuko dituzte.
 - ONUk badu tribunal bat nazioarteko auzitegi gorena deritzona, eta hala arazoak ez dira nazioarteko auzitegira eramango bertan konponduko dira. Arazo hauek negoziatuz, gerrara joanez,... konponduko dira, eta estatuak hainbat tresna baketsu sortzen ditu. Beraz, badago gerraren debeku orokor bat, baina, ez absolutua.
- Nazio Batuek gerra bat onartuko dute eurak erabakitzen dutenean. Zergatik egin gerra estatu bati? Ez direlako Nazio Batuen arauak errespetatu, eta hauek horren kontra interbenitzeko askatasuna dute. Hau da gerra legitimo baterako lehen aukera. Antzina, estatu batek erabakitzen zuen zer zen legitimoa, eta zer ez.

Nazio batuen erabaki guztiak Nazio Batuetako asanblada orokorrak hartzen ditu. Bertan, estatu bakoitzeko boto bat dago, eta hauek esaten dute zer dagoen egoki edota zer ez.

Baina, hartu beharreko neurriak hartzeko Segurtasun Kontseilua dago, eta honen barnean daude bost estatu horiek.

- Bertan, asanblada orokorrean erabaki diren gauzetan interbenitzeko aukera izango da.

Ordura arte, segurtasuna estatuak jarriko dute NBEk, berriz, segurtasun kontseilua bultzatuko du segurtasuna bultzatzeko.

Estatu guztiak batu beharra dira erabakiak hartzeko; baina, bada salbuespen bat, non, estatu batek bere erabakiak bere kabuz hartzeko eskubidea izango duten. Salbuespen horretan, defentsa legitimoan soilik erabili daiteke indarra.

Defentsa legitimo izateko bi baldintza ditu:

- Aldez aurreko eraso bat beharko da, hau da, ni defendatzeko eraso bat jasan beharko dut. *Irakeko gerran AEBko estatuburuak gerra babeserako defentsa legitimo propioan egin zela esan zuten (hau da esan den astakeriarik handiena).*
- Erasoaren eta erantzunaren artean dago proportzionaltasuna, hau da, erasotzaileak niretzako eragiten duen erasoaren arabera erantzun proportzionala erabili beharko dut. Honekin neur daiteke estatuak erabiltzen duen biolentzia zein puntutaraino den legitimoa.

Nazio Batuen kideak

- Kide diren estatuak:

Nazio Batuen erakundean gaur egun 193 kide dira;

- Estatu begiraleak

Badira estatukide oso ez diren bi estatu, hau da, eskubide guztiak ez dituztenak.

- Vatikanoa
- Palestina

NBEen ekintzetan parte hartzen dute, eta estatu gisan onartuak dira, baina, ez dute botoa emateko eskubiderik.

- Kide ez diren estatuak:

- Saharar Errepublika

Nahiz eta NBEk autodeterminazio (erreferendum bat egiteko) eskubidea duela onartu. Sahara Espainiako kolonia bat izan zen, eta Marokon martxa berdea egin eta milioika marokoar Saharan geratu ziren. Beraz, Saharako lurraldearen kontrol efektiboa Marokok du.

- Taiwan

Txinako lurraldearen menpe dagoen irla. Bertako gobernu nazionalista komunistek garaitua izan zen, eta gobernuk txinatik alde egin eta Taiwanera joan ziren.

Beraz, bi Txina bereiztu izan dira, batetik, kontinentean zegoen Txina komunista, eta bestetik, Taiwanen zeuden txinatarrak. Baina, Txinak beto eskubidea du, eta ez du Taiwan lurralde gisa ikusten.

- Kosovo

Jugoslavia estatu komunista bat zen, eta lurralde batzuk independizatu egin ziren. Bertatik Serbiak alde egin zuen, eta Kosovoko errepublika izendatu zen. Baina, estatu askok ez dute Kosovo errepublika independentetzat ikusten, eta horien artean daude Txina eta Errusia, beto eskubidea duten bi herrialde.

Denak dira egoera nahiko gatazkatsua bizi izan duten lurraldeak, gehienetan bizi izan dira gerra ezberdinak.

Nazio Batuen erakundeak

Nazio batuetan erakunde ezberdinak daude; baina, erakunde jakin batzuk bakarrik ikusiko ditugu.

- **Asanblada Orokorra:** parlamentu antzeko gauza bat, non, erabakiak hartzen diren. Bertan, estatu kide guztiak daude ordezkatura, eta estatu kide bakoitzak boto bat du. Palestina eta Vatikanoren kasuan joaten dira, baina, ez dute botorik ematen.
- **Idazkari Orokorra:** hauteskunderik eta bilerak deituko ditu, eta agintariek dituzten aginduak bideratzeaz arduratuko da.

- **Segurtasun Kontseilua:** erakunde garrantzitsua da, eta gobernua bailitzan lan egiten du. Bertan, 15 estatu daude, eta hauek txandakatuz joango dira. 15etik 10 estatu dira txandakatzen direnak, beto eskubidea duten 5 horiek izango dira txandakatuko ez diren estatuak. NBE 5 estatu hauei berez duten nagusitasuna onartzen zaie. NBE demokratikoa den arren, ez da guztiz demokratikoa badirelako pribilegioak dituzten estatu batzuk.
- **Nazioarteko Auzitegia (La Hayakoa):** Holandako hiriburuan. Tribunal izenez ere ezaguna da, bertan kokatzen delako Nazioarteko Auzitegia.

La Hayan tribunal bat baina gehiago daude, bi hain zuzen ere.

- NBEren Nazioarteko Justizia Auzitegia da, baina, tribunal bat izan arren, erakunde arbitral gisa jokatzeko du, hau da, NBEko kideen arteko bitartekari lanak egiten ditu. Baina, inor ez da bertara joatera behartua izango, estatuak nahi badute soilik eramango dute arazo bat bertara.
- Nazioarteko Gorte Penal da beste auzitegia, baina, ez dago NBEren barnean. Honek genozidio delituak zigortuko ditu; baina, printzipioz delituaren definizioa estatu bakoitzaren esku dago, hau da, delituak tokian tokiko delituak dira. Hau da printzipio orokorra eta mundu osoan zehar indarrean egon dena.

Baina, egun gauzak aldatuz doaz, eta beste tribunal bat sortu da. Delituak tokian tokikoak dira, baina, badaude batzuk mundu guztiak delitu kontsideratu behar dituenak, ez direlako gizarte baten kontra soilik egiten, humanitatearen kontra baizik. Hain dira larriak, non, ezin diren estatu baten ardura kontsideratu. Hauek, erabateko sarraski gisa ikusiak dira. Bada lege bat orain arte emandakoa ahaztu eta gauzak zerotik hasia defendatzen duena.

Baina, delitu hauek mundu osoaren kontra egiten direnak izango dira, eta, noski, barkaezinak. Beraz, delitu hauek La Hayako beste tribunalean eramango dira aurrera.

- Tribunal honek aurrekari batzuk izan ditu, Munduko Gerraren ostean hainbat tribunal (Nurenberg eta Tokioko Tribunalak) sortu zirelako, non, Nazioek egindako gerra delitua epaitu zen.

Tribunal hau, Nurenbergekoa, ez zen objektiboa izan gutxi gorabeherako kalkuluak eraman ziren aurrera.

Historian zehar egon dira beste tribunalak 'Ad Hoc' batzuk ere, gerra jakin batzuek ondorioz delitu kontsideratu direnak. *Garzonek ANko epaile batek Nazioarteko Gortetik ez zegoela eta bere gain hartu zuen Pinocheten kasua. Baina, estradizioa egin gabe geratu zen. Gertakari hau izan zen Nazioarteko Gorteen sorrera bultzatu zuen ekintzetako bat.*

Gorte honek ez du mundu osoko estatuen jurisdikzioa, estatu batzuk ez dute onartzen. Hau da, estatu batzuk beste estatu batzuk derrigortzen

dituzte Gorte Penalei jurisdikzioa ematea. Egun 90 estatuk onartua da Gorte hau, jurisdikziorik ematen ez dioten estatuak gerra bizi dutenak dira Ipar Korea esaterako.

Heriotza zigorra munduko estatu guztietan dago, baina, ez da aplikatzen. Aplikatzen duten estatuak gutxi batzuk dira.

Europar Batasuna (EB)

Europarren arteko gerrak XX. mendean gerra globalak bihurtu ziren. Bi gerra egon dira, Europarren artean sortuak gero mundu osoan zehar banatu zirenak. Bi gerrek dute lotura garrantzitsu bat Mundu Gerren testuinguruarekin.

Beraz, NBEren gisan hau ere Mundu Gerrek sortutako krisi baten ondorioz sortuak dira, hau da, Alemania eta Frantziaren arteko iskanbiletatik sortuak.

Baina, Europan betidanik izan dira arazo geopolitikoak. II. Mundu Gerran gertatuz zen garrantzitsuen gizakiak bere esku duela indar nuklearraren kontrola.

Hala, gerran indar nuklearra erabiltzeak munduan gizakia desagertarazteko aukera ematen dio gizakiari. Beraz, hemen orain arteko egoera birplanteatuko da.

II. MG ostean hainbat arazo izango dira, Europa osoa deseginda geratuko delako. Beraz, III. MG bat ez gertatzeko borrokatzen dute bonba nuklearrak existitzen direlako. Honek, Alemania eta Frantziaren arteko betidaniko arazoak beste era batera bideratzeko plana sortuko dute.

Ondorioz, gerra arriskua saihesteko kooperazioa bultzatuko duten erakundeak sortuko dira.

Europar batasunaren aurrekariak:

Europar Batasunaren lehen aurrekaria 1951. urtean sortuko da Parisen. Erakunde hau CECA izenez ezaguna da, baita 'ikatzaren eta burdinaren komunitatea' izenez ere. Alemania, Frantzia, Italia eta Benelux (Belgika, Herbehereak, Luxenburgo) izango dira bertako partaide. Honen funtzioa burdinaren eta ikatzaren produkzioa arautzea izango da, hauek produkzioa elkarren arteko aginte baten pean ezarriko dute.

1957. urtean Erromako Ituna sinatuko da, eta bertan bi elkarte berri sortuko dira. Batetik, EURATOMA, energia atomikoaren erabilera erregulatzeko erakunde bateratua, eta bestetik, EEE (Europar Ekonomia Elkartea) gaur egungo elkarerik garrantzitsuena.

Honen arrazoia beste biak arazo militarrekin lotuta daudelako, eta lehen arazo militarrek garrantzitsuak izan arren, orain Europar Batasunak ekonomiaren inguruan diardu.

Britania Handia da falta den herrialde bakarra, hauek ez diotelako beste herrialdeek beste garrantzia ematen Europar Batasunari. Beraz, BH batasun hori oztopatzen saiatuko da, eta beste erakunde bat osatze proposatuko du; Europako Kontseilua izenez ezaguna.

Europako Kontseilua kooperazio erakunde bat da, baina, bigunagoa, non, ez dagoen bestean bezainbesteko inplikaziorik. Hauek gauzak denen artean adostuko dira, eta betiere estatu guztien beto eskubidea errespetatuko da, hau da, estatu guztiek ez daukate zertan ados egon.

Hauen zeregina kooperazioa bultzatzea da, eta giza eskubideen arloari dagokionez oso lan garrantzitsua egin dute.

Honen baitan dago Eskubideen Europar Konbentzioa, eta hauek eskubide batzuk egingo dituzte Europako estatuentzako, estatuak berak dituen estatuez aparte. Hau, Europar Kontseiluak sortutako erakundea da. Konbentzio hau Europako nahi duten estatuak sinatuko dute, eta gainera, boterea ematen diote sortuko den aginte bati: Giza Eskubideen Europar Auzitegia (Estrasburgoko Tribunal).

Hau izango da Europa mailan egingo den lehendabiziko aitortpena; bertan, estatuko tribunalaz gain beste tribunal bat ezarriko dutelako. Honek, eskubidea zapaldua izan den edota arazorik izan duen ikusiko da, ez da konstituzioan edota estatuan nola dagoen ikusiko.

Tribunal honek ez du inolako zerikusirik Europar Batasunarekin. Europar Batasunak badu bere tribunalak, Luxenburgon hain zuzen ere.

Hasiera batean, Europar Batasunak ez zuen izen hau Europar Elkarrekin zuen izena. Baina, 1967an hiru elkarrekin (CACA, EEE eta EURATOMA) batu eta Europar Elkarrekin izena jarri zitzaion. Ondoren 1993an Europar Batasuna sortuko da.

Prozesu honen baitan erakunde indartsu bakarra lortuko da, gero eta handiago egingo dena. Hasiera batean 6 estatuak sortu zuten; baina, zabaltzen joan zen egungo 27 estatu kide izan arte. Kideez gain, zeregin, presupuesto,... gero eta handiagoak egiten joan ziren.

Zer da Europar Batasuna? (izaera)

Oso zaila da honi definizio bat ematea, munduan ez baitago antzeko prozesurik. Oso berezia da aldatuz doalako, ez da finkoa. Badaude nazioarteko erakundeak, baina, oso ahulak dira.

EB nazioarteko elkarte gisa sortu zen, baina, egun nazioarteko elkarteak baina gauza askoz sakonagoa da.

Badituelako nazioarteko elkarteak diren ezaugarri batzuk; baina, bestalde baditu federazio baten ezaugarriak. Hortaz, nazioarteko elkarte bat baina askoz ere integratuagoa dago, baina, estatu bat baina gutxiago, hau da, bien artean dago.

Batzuek, konfederazio modura definitzen dute, baina, honek ez du inolako baliorik, munduan ez baitago konfederaziorik. Badira munduan federazio izena izan arren federazio ez diren estatuak, Txina esaterako.

Nola egin zen egungo EB?

Existitzen diren konfederazioak estatuak batu zirelako existitzen dira. EB sortu zenean ez zuen inork subiranotasunik galdu nahi. Hortaz, ez zen inon idatzi estatuek subiranotasuna galduko zutenik, eta tresna batzuk sortu zituzten, non, gero eta kompetentzia gehiago bereganatuko duten, eta botere gehiago lortuko duten. Hortaz, erakunde bat sortu eta bere eginbeharretan jarraituko dute, hau da, zeregin bat sortuko da, eta zeregin horrek bere bidea egingo du beharrianak sortuz eta erabakiak bultzatuz. Orduan erakunde berri bere botereak bereganatzen sortuko da, eta Europar Batasuna sendoagotzen joango da.

Europar Batasunak zeregin eta auzitegi batzuk dituzte. Hortaz, auzitegi hauek EBri bere boterea sendotzen lagunduko diote. Auzitegi horien helburua honako da: 'inployed power', hau da, helburuak lortzeko zabaldu beharra dugu, eta hasiera batean nireak ez ziren inguruko esparru batzuk neureganatuko ditut.

AEBko auzitegi gorenak askotan erabili izan du hau. Europar auzitegi hau Luxenburgoko auzitegia da. Honek, EBri aurretik aipatu gabeko botere batzuk emango dizkio, eta bere boterea estatu kideen gain inposatuko da.

Luxenburgoko tribunalak bere kompetentzietan agertu ez arren, onartu egin zuen. Beraz, EB botere inplizitu baten bidez sortuko da, eta gainerako estatuei botere kenduko die.

Egun EBk oso izaera arraroa du, ez baitu ejertzito propiorik, hau da, baditu tropa txiki batzuk, baina, baditu ejertzito txiki batzuk. Askotan estatu bat bailitzan funtzionatzen du, EB estatu bati inposa dakioke zer den txokolatea edota ardoa, hau da, estatu batean tipikoak diren hainbat erabaki hartuko ditu.

Estatuak dirua egiteko boterea du, hau da, dirua egiteko makina bat balu bezala. Baina, EBko estatuek galdu egin dute dirua sortzeko botere hau.

EBren erakundeak

EBk eskumen bereziak ditu mota askotako erabakiak hartzen dituelako.

- Erabaki batzuk hartzeko guztiek ados egon behar dute. (unanimidat)
- Bertan, konforme ez dauden estatuek ere bete egin beharko dituzte erabaki horiek. Baina, erabakiak gehiengoz hartu behar diren estatuetako sistema oso konplexua da.
- Estatu bakoitzari bere populazioa kontuan izanda boto kopuru bat emango zaio.
- Erabaki horiek hartzeko blokeorako gutxiengoa beharko da, hau da, estatuko kide batzuk elkar daitezke erabaki horiek blokeatzeko asmoz. Normalean erabakiak gehiengoaz har daitezke nahiz eta gehiengo zabal bat beharrian.

EBk estatuen antzeko botere banaketa du, baina, banaketa hori ez da berdina. Estatuetan hiru botere (parlamentua, gobernu eta auzitegia) daude.

- **Europako parlamentua** estatuek duten parlamentuaren antzeko da. Baina, botere gutxiago du. Parlamentu da, baina ez da parlamentu oso. EPk ezin ditu

erabaki asko bere kabuz hartu, beste erakunde baten beharra du legeak aprobatu ahal izateko. Beraz, izaera berdina duen arren, betekizun mugatuagoa du. Gaur egun, Europako herritarrek hauteskunde berezi batzuen bidez hautatua da, eta estatu bakoitzak bere ordezkariak eramango ditu Europar parlamentura. Ordezkari horiek proportzionalki banatuak egongo dira, hau da, biztanle kopuruaren arabera da estatu bakoitzaren kopurua. Parlamentuaren erdia Estrasburgon kokatuta dago eta beste erdia Bruselasetan. Lanik gehiena azkenekoan egiten da, sede nagusia Estrasburgokoa izan arren.

- **Justizia auzitegia**, Luxenburgon kokatzen da, eta ez du Estrasburgoko Tribunalarekin inolako zerikusirik. Bertan, arazo ekonomikoen inguruko kontuez jarduten dute.
- **Gobernua**. Ez dago gobernu zehatzik hiru gobernutan bereizita dago.
 - **Europar Batzordea**. Bertan komisarioak daude, eta komisario bakoitza bere batzordeaz arduratzen da. Badaude komisarioak bai industriadako, bai harremanetarako... Gobernuetako banaketarekin antza handia duen arren ez ditu gobernu baten betekizun osoak. Batetik, batzordeari dagokio ekimen legegilea, hau da, Europako legeak proposatzeko aukera. Bestetik, estatu baten burokraziaren arduradun nagusia batzordea da. Bulego guztiak batzordeko komisioren barnean daude, et komisiario honi dagokio administrazio horien kudeaketa. Europako itunei dagokienez hauen betearazpena ere batzorde honen ardura da.
 - **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)** Honi dagokio erabakirik garrantzitsuenak Europar parlamentuarekin batera. Kontseiluko kideak ez daude Europaren aginduetara, hauek estatuek aginduetara daude. *Industriadako inguruko erabaki bat hartu behar bada, estatu guztietako industria ministroak batuko dira*. Hartu behar den erabakiaren arabera ministroak batuko dira. Hau ez da erakunde europarra baizik gobernu ezberdinek batera hartzen dituztenerabakiak. Beraz, hauen erabakiei erabaki intergubernamentalak (gobernu ezberdinetako ordezkariak osatua) deritze.
 - **Europar Kontseilua (Cumbre de jefes de Estado y de Gobierno)** Hau ez dute adar ezberdinetako ministroek osatzen gobernuetako presidentek baizik. Bertan, sektore jakin batekoak ez diren erabakiak hartuko dira. Honen izaera nazioarteko erakundearen izaeraren oso antzekoa da, hau da, hauen logika nazioartekoa da, intergubernamentala.

Hauek dira erakunde nagusiak, baina badira beste erakunde batzuk ere.

EBren antolamendua:

Europar Batasuna modu demokratiko batean antolatuta dago, baina EBk baditu defizit demokratiko (defizit soziala) batzuk, non, estatuak baino kontrol demokratikoa dagoen.

Honen arrazoia faktore ezberdinak dira:

- EBn ez da iritzi publiko bat sortu, hau da, jendeak ez du EBn hartzen diren iritzietan inolako interesik.
- Jende gehienak uste du bere politika bere herrialdearen inguruan soilik mugitzen direla, hau da, jendeak irakurtzen duen gehiengo bere politikaren ingurukoa da.
- Ez dago iritzi publikorik, eta erakundeekiko kontrola mugatua da.
- Ez dago hedabide europarririk, jendeak tokan tokiko hedabideak soilik irakurtzen ditu, eta honek estatu mailako bizitza bat dakar.

Botere banaketarik ez dagoen arren badaude *Lobbyak* (presio taldeak). Hauek, erabakiak hartu behar dituzten pertsonen botere guneak presionatzen dituzte.

EBen betekizunak:

- Merkatu bakarra sortzea

EB sortu zenetik estatu kideen artean zeuden mugak kendu eta komunean zeuden erakunde eta aginteak ezarriko dira. Hainbat betekizun izan arren, bere lanik handiena batasun ekonomikoaren arloan izan du. Bertako estatuak lehenengo merkatu bakar bat egin zuten, eta honek merkatu sakon bat ekarriko zuen. Hortaz, unifikazioaren merkatua batasun ekonomikotik dator.

Oinarriak:

- **Aduanen batasuna:** estatuaren artean aduanak, mugak, frontera ekonomikoak, estatu batetik besterako zergak,... kenduz joan ziren.
 - Lehenengo kendu zituzten zergak arantzelak, nork bere estatuko merkataritza babesteko ezarritako zergak, izan ziren.
 - Hortaz, sortu zen lehen batasuna arantzen batasuna izango da, non, euren artean existitzen diren arantzelak kanpora begira jarriko diren (hainbat estatu elkartuko dira, eta auren arteko arantzelak kenduko dituzte; baina, gainerako estatuarekin arantzelak izaten jarraituko

Baina, arantzelak kentzea ez da nahikoa estatuen arteko merkataritza indartzeko.

Moneta ezberdina badago produktu bera batzuentzat merkeago eta beste batzuentzat garestiagoa izango da. Infrastrukturetan ere arazoak izango dira, merkatu guztiak arautuak baitaude; baina, produktuek ez dituzte estatu guztietan arau berdinak, eta ezberdintasun honek ez dio merkataritzari indarrik ematen. Hortaz, arauak estandarrik sortuko dituzte, eta estandar horiek ezberdinak izango dira estatuaren arabera.

- Hemen hasi zen EB **arauen harmonizazioa** egiten, hau da, arau ezberdinak bata bestearen pare jarri ahal izateko eginiko arauak. Beraz, estatu bakoitza beste estatuarekin ados jarriz arauak bateratzeari ekingo diote. *Trafiko seinaleak bateratuko dituzte, medikamentuei prospekto berak ezarriko dizkiete,...* Hau, EBn egiteaz gain mundu mailan ere egingo da.

- Europar Batasun ekonomikoa gehiago bultzatu ahal izateko **merkatuaren faktore batzuk askatuko** dituzte, hau da, EBk espazio ekonomiko bateratua bultzatzeko askatasun batzuk sortuko dira:
 - kapitalen askatasuna
 - zerbitzuen mugitzeko askatasuna,
 - lanaren mugitzeko askatasuna eta
 - produktuen mugitzeko askatasuna.

Honekin guztiarekin ia oso osorik kenduko ditugu mugak. Horrela, onartu egiten da etatu kideetako pertsona eta gauzak Europar Batasunan libreki mugitzea. Zirkulazio skatasuna edo mugitzeko askatasuna sustatzen da

G.E.A.U.-k dio mundu guztiak bere jaioterritik mugitzeko askatasuna duela. Baina, aitorten unibertsalak askatasun hori onartu arren, NBk dio estatu bakoitza subiranoa dela, eta hortaz, estatu bakoitzak onartzen du bere herrian zein biziko den. *Afrikako estatu pobre batean jaiotzen baina hasiera batean alde egiteko askatasuna dute; baina, beste herrialdeek ez dute zertan beratu onartu.* Beraz, diruak ere baldintzatzen du mugitzeko askatasuna, diru asko duenak mugitzeko aukera izango duelako, eta diru gutxi duen hori ez da gainerako herrialdeetan onartu izango.

EBn efektiboki bermatzen da zirkulazio eta egoitza hartzeko eskubidea. Hau da, EBn edozeinek du askatasuna nahi duen hori egin ahal izateko.

- **Dirua bateratzea;** amankomuneko merkatu bat sortzeko neurriarik komunena. Txanpon berdina izateak herrialdeen arteko komunikazioa eta merkatua erraztuko ditu. Baina, dirua estatuen subiranotasunarekin lotuta dago. EB hasieran txanpon birtual bat erabiltzen hasi zen, ECU (European Currency Unite ingelesez eta escudo frantsesez). Euroa (€) txanpon bakarra da, eta hainbat ezaugarri ditu.

Estatu batek nahi duen diru kopurua egiteko askatasuna du; beraz, estatuak politika monetarioa egiteko eskubidea du. Munduko estatu guztiek, Europakoek izan ezik, eskubidea dute nahi duten diru kopurua egiteko. Baina, diruak zerbait ordezkatu beharra du, hau da, bere atzean aberastasun bat egon behar da, bestela moneta debalatu egiten da.

Dirua produzitzean hiru gauza egin ditzakezu: politika monetario orekatua, estatua izango da zure dirua kontrolatuko duena. Gero eta diru gehiago atera, orduan eta balio txikiagoa izango du. Hau da, diru gehiago badugu ez gara diru horren benetako balioaz ohartuko, diru hori lortzea erraza izango zaigulako. Honek hainbat ondorio izan ditzake; batetik, onak, noiz datorkizu ondo daukazu diru baina gehiagorekin jokatzea? Bai ekonomia eta bai dirua orekan badaude. Eta bestetik, txarrak, noiz datorkizu ondo duguna baina gutxiagorekin jokatzea? Ekonomia beroegi egon denean, desoreka izugarri bat izateko arriskuan gaudelako. Baina, diruak gora egingo duela uste duzunean ere ateratze ez da txarra.

Hiru politika monetario mota daude:

1. Europako Banku Zentralaren helburu bakarra: egonkortasuna eta oreka.

Politika monetario hori egitea, hau da, erabiltzen den diru hori egitea. Hau gobernuaren erabakia da, eta munduko estatu gehienek erabiltzen dute.

Baina, badira estatu batzuk euren gobernuak dirua egiteko makinarekin jokatzeko ez duenak. *Alemania tradizionalki bertako banku zentrala autonomoa izan da gobernuarengandik, eta gobernu zentralak agindutzat zuen bere politika monetarioak oreka mantentzea. Nolabait esateko bertako ekonomia ez berotzea, hau da, ekonomiaren indarra baina gehiagoko dirurik ez ateratzea. Beste hainbat lurraldetan ez da hau jarraitzen eta politika monetarioa erabiltzen da.*

Munduko estatu gehienek politika monetarioa egiten zuten arren Alemaniak ez, eta orduan euroa ezartzerako garaian Alemaniako modeloari jarraitu zioten, Alemania zelako momentu horretan txanponik sendoena (markoa) zuena. Txanpon bat sendoa da gora behera handirik ez duenean, beti leku berean mantentzen denen.

Hau gerta ez dadin politika monetarioa gobernu batetik kanpo utzi beharra dago. Beraz, euroa (€) Alemaniako ereduari jarraituz sortzen da, eta ez dio zertan gobernuari jarraitu.

Europako Banku Zentralak badu arau bat, non, monetak debaluaziorik izan behar ez duela dioen. *Alemanian prozesu honi jarraitzen zaio bere garaian debaluazio prozesu gogor bat jasan behar izan zutelako.* Hortaz, Europak euroarekin hainbat aukera galduko ditu, eta honen arabera egingo da euroa.

Beraz, Europako Banku Zentralari helburu jakin bat ezarri zitzaion euroa sortu zenean; egonkortasuna. Gainera, euroa Alemaniako 'Markoa'ri izena aldatuta sortu zen, zeinak, Europa barnean Alemaniaren nagusitasuna suposatuko duen.

Baina, Europa osoan Euroa (€) ezarri arren bada herrialde bat euroa onartu ez duena, eta hori Britania Handia da, zeinak, Libra mantentzen duen. Beti izan baitu lotura handia AEBrekin Alemaniarekin baino.

2. Estatu batetik besterako banku eta zerga ezberdintasuna.

Europar txanponaren batasuna gabezia batzuekin egin zen, ez direlako ez bankuak ez zerga sistema batzen. Are gehiago, banku bakoitzak baldintza ezberdinak izango ditu. Beraz, esan daiteke ez dela orekarik izango.

3. Banku Zentralak ez dio Gobernuari dirurik emango.

Ez dugu gobernua diru gehiegirik erabiltzerik nahi, ez dugulako eurenganako konfiantzarik. Hortaz, dirua bakarrik bankuei utziko zaie, eta ez Gobernuari; hala, gobernuak arazorik badu eska diezaiola dirua bankuari. Gobernuak gastatzeko eta zorrak sorrarazteko erraztasuna izango duelako. Salbuespen gisa soilik bidal dakioke dirua Gobernuari.

Badaude estatu buru batzuk ekonomia beherantz presionatzen hasiko direnak, eta honek krisi ekonomiko bati emango dio hasera. Hortaz, joko hau egiten hasiko dira beste hainbat lurraldeetako ekonomiarekin.

Euroaren krisia

Sistema finantzarioan, bankuetan, bere jatorria duen krisia da, zorraren krisia. Esan daiteke pertsona partikularren zorrak estatu osoaren krisi bihurtu direla, eta honek, estatuari eragin handia sortu dio. Beraz, krisi finantzarioa zorraren ondorioz hasi zen.

Krisiaren sorrera:

Krisia AEBn hasi zen, eta sistema ekonomikoak helburu bat duela ematen zaio hasiera. Momentu batean bankuek sinesgarritasun osoa galduko dute, eta bankuen eta diruaren balio jendearen sinesgarritasuna soilik da.

Orduan, momentu batean krisi bat sortuko da bankuek ez dutelako ezagutzera ematen duten diru hori. Krisi honek Europan euroarengan izan zuen eragina, euroaren krisia edo 2008ko krisia izenez ezaguna den krisi hau.

Krisiaren ezaugarriak:

- Aurrekontu orekatua edota defizit eza, hau da, estatuak diru kantitate handirik ez gastatzea, eta beste edozein erakunderi dirurik ez eskatzea, berak duen dirua erabiltzea alegia. Ideia hau Europa osoara zabalduko da.
- Teorian zorra nahiko mugatuta zegoen arren, baziren zor publikoa ezkututzen zuten Estatuak ere, hau da, zorra zirudiena baina handiagoa zen; batez ere Europako mendebaldeko herrialdeetan. Ustelkeria politikoa, gestio txarra eta defizit txikia izateko exigentziaren ondorio zen gezurra esate hori. Zor pribatuak ere badu zerikusia, eta sistema finantzarioa ere. Bada prozesu bat non zor publikoa azken batean handiago bihurtuko den zor pribatua publiko bihurtuko delako.

Honek estatua dirurik lortzeko kapaz ez izatea eta estatuek zor nabarmenak izatea ekarriko du. Hala, estatuak zureganako konfiantza galduko du. Egoera honek Grezian, Italian, Portugalen,... izan zuen eragina.

- Momentu honetan elementu objektiboak dituen krisi hori aprobetxatuz botere aldaketa bat gertatuko da Europa barruan, eta lehentasuna hartuko du Troika izeneko erakundeak. Troikak hirukotea esan nahi du, eta kasu honetan hiru erakunderen bateraketa esan nahi du: Europako Batzordea, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Fondo Monetarioa (FMI).

- Hiru erakunde hauek euren ekintzak batu eta zorretan barru barruraino sartuta dauden estatuetan esku hartu.

Krisi ekonomikoak ondorio bezala dakar beste pauso bat emango dela politika neoliberaletan, europako neurri asko ez dituzte normalean hartu beharko lituzketen erakundeek hartuko, erakunde honek baizik. Neurri hauek interesatzen zaizkien artean daude Alemaniako hainbat erakunde.

Honek, erabaki politiko bat ekarriko du, non, ez den finantzaziorik emango edota baldintza batzuk onartu ondoren emango den finantzazio hori, hau da, dirua emango zaie baina diru horrek prozesu bat izango du.

Bertako kideei Troiak hainbat exigentzia emango dizkie; batetik,

- sarreren eta gastuen arteko desorekaren orekaren beharra, hau da, gastuak daukaten dirua baina txikiagoak izan beharra dute.
- Hau egin ahal izateko hainbat neurri emango dituzte: langileen soldatak murriztea, eta bestetik, ekonomia berotuko dutelakoan euren gastu publikoaren murriztea exigituko diete, eta murrizketa horiek zerbitzu publikoetan izango dute eragina.
- Orduan honek birkonposizio bat suposatzen du, eta estatu soziala desagertarazteko beste pauso bat ere suposatuko du planteamendu neoliberalen inguruan. Hazkunde ekonomikoa murriztu egiten da zorrak ordaintzeagatik. Egun jartzen dituzten neurriak kontraproduzenteak dira, hainbat neurri aurre egiteko. Desorekak areagotu dira Estatuaren barnean, honek birkonposizio bat suposatu duelako Estatuaren barrura begira. Desoreka ekonomikoak ere zeharo handitu dira.

Honek ez du bakarrik disziplina ekonomiko bat suposatu, hau da, neurri handi batean krisi hau berrantolaketa politiko bat egiteaz aprobetxatu da, eta hainbat estatu interbenituak izan dira kasu batzuetan konstituzio eta gobernuak zuzenean aldatuta.

Europar badaude botere politiko batzuk, non, birrantolaketa politiko bat ematen den, eta Troiak boterea hartzen du Europa mailan, botere politiko batzuk inposatuz.

- *Italia da horietako bat, bertako presidentea edota konstituzioa (135. artikulua, hain zuzen ere) aldatzera behartuta egon direna. Aldaketa horretan aurrekontuen oreka bihurtuko da Konstituzio politikoaren oinarri, konstituzioaren inguruak aldatzen dituelako.*

Nazioarteko Merkataritza:

Araututa egongo da eta hauek nazioarteko erakundeek ezartzen dituzte. Laburbilduz, Nazioarteko merkataritzak bi fase izan ditu 1)1945etik 1970eko hamarkadararte, multiplikatu egingo dira nazioarteko harreman ekonomikoak. 2.MG amaitzean merkataritzaren globalizazioa gauzatuko da.

a) Bretton Woods eta arau amerikarrak

“Bretton Woods” Sistema harreman finantzarioak dira nazioarteko merkataritza. 2.MGn hasi eta Vietnameko gerrara arte iraungo du.

Zertan datza sistemak? AEBko hegemoniaren oinarriak ezartzen ditu merkataritza globalean. Hau da, bertan esaten da amerikarrek jarriko dituztela arauak mundu mailako merkataritzarako, eta 3-4 hamarkadetan zehar indarrean egongo dira.

Zergatik inposatzen dituzte euren arauak? Hegemonia dutelako. Momentu horretan aberatsak ziren herrialde guztiak, potentziak erorita daude, miloika eta miloika pertsonak hilak daude, edifizio suntsituak...denak daude eroriak. Aldiz, AEBko errealitatea ezberdina da, honek garapen ekonomiko industrial handia suposatu zien.

Boterea ekonomian egongo da oinarrituta eta ez armadan. Botere ekonomikoak zutabe ugari ditu, baina momentu honetan oso garrantzitsua izango da, zein da AEBko ekonomia hain indartsua izateko arrazoia?

Ikerketa zientifikoa. Aurrerapen zientifikoek esaterako, bonba nuklear bat egin ahal izatea, lehenasuna ematen du. Zientifikoki aurreratua doanak arauak jartzen ditu. AEBkoek “Science: the endless frontier” txostena sotzen dute, bertan diote, komunitate zientzientziak esaten dio AEBko gobernuari, hegemonia izaten jarraitu nahi badute, ikerketa zientzifikoa gauzatzeko baliabide oso arurreratuak izan behar dituztela. Diru asko inbertituko dute bertan amerikarrek.

Nola dago mundua momentu honetan? Mundu guztiko BPGren erdia dago AEBn.

Bretton Woodsen ia munduko estatu guztiak egongo dira, bertan bi ildo nagusi egongo dira; Keynes VS AEBren aurka, azkenean AEBren arauak ezarriko dira **KONTUZ IGUAL ASMATU DUT!**

b)OMC (Munduko Merkataritza Elkartea) eta akordioak

Munduko Merkataritza Elkartea, estatuen artean nazioarteko akordioak bulzatuko ditu, mundu mailako merkataritza errazteko. Arauak jarriko ditu merkataritza errazteko. Naizoarteko merkataritza ahalbideratzeko, ez da nahikoa zerga protekionistak, aduanak...kentzea, arauak ere jarri behar dira arauak, eta nork jarriko ditu arau hauek? Potentziek ezarriko dituzte. Arauak antzekotuko dira nazioartean baina nagusien interesean izango dira beti, kasu askotan txikienen artean.

c) Finantzak:

Nazioarteko Fondo Monetarioa Bretton Woodsetik dago sortua. Banku Mundiala Nazio Batuen barruan dago eta FMI bereiztuta daude. Estatu bakoitzaren aberastasunaren arabera, proportzionaki Banku mundialak diru laguntza herrialde azpigaratuei ematen die.

FMI estatuen arteko merkataritza orekatua izateko laguntzak ematen ditu. Estatuen arteko oreketan desoreka finantziarioak ez sortzeko.

Dolarraren indarrean oinarritzen da eta urtean ere du oinarri.

Arau honen ondorioz, merkataritza potentzia berriak joango dira sortzen, estatu hiperexportatzaileak. Eta beste askok indarra galduko dute. Produkto masiboak, lanesku

merkean oinarritzen direnak, kalitate txarrekoek...Estatu hauek batez ere Asiakoak izango dira, eta balantza komertziala aldatuz joango da, balantzaren erabat hegemoniko ziren estatuak ahulduko dira. Baina hauek ohartuko dira zientzia ikerketak duen garrantziaz, eta ikerkuntzan hasiko dira. Gaur egun, Asiako estatu askok Europako estatuei aurrea hartzen doaz ikerketa arloan. Gran Torino pelikulan agertzen da hau.

Gaur egun diruaren atzean ez dago ezer, sistema gaur egun "fedean" oinarritzen da.

Askotan aurreko erakundeen kideak ekonomista ultraneoliberal ortodoxoak dira. Merkataritzaren arloan ezin da bereiztu zer den internazionalizazioa, botere publikoa eta botere pribatuaren artean. Azken finean, interes pribatuen arabera

8. GAIA: GLOBALIZAZIOA DESNAZIONALIZAZIO BEZALA. ESTATURIK GABEKO MERKATUA?

Zerk egiten du erabaki bat politiko izatea?

Jende askoren bizitzan eragina duenean, gauzak politikoak dira orokorrak direnean. Gaur egun, munduko enpresa nagusiak bihurtu dira botere gune kontzentratu eta pribatuak. Esku pribatuak dira, eta baldintzatzen dituzte gure eguneroko bizitza uste dugun neurrian baino gehiago.

Multinazionalak-Taldeak

Munduko enpresa nagusiak enpresa handiak eta enpresa internazionalak dira, honek esan nahi du egoitza ez dutela toki berean. Dena den multinazionalak badute burua leku batean, normalean, euren ekintzak aurrera eramaten dituzte toki ezberdinetan. Enpresa talde bezala, badute nagusi bat, eta badute konglomeratu enpresena eurekin lotura dutena. Gainera, enpresa taldeak direnak, buru bat eta enpresa sistema bat, enpresa sare bat, bata bestearekin etengabeko kontaktuan daude. Horrek esan nahi du, edozein estatuko enpresa nagusiak hartzen baditugu, enpresa batek beste enpresa baten %15 erositara eduki dezakete. Eta aldi berea, bigarren enpresa batek, hirugarren enpresa baten %20 du erositara...Horren ondorioz, enpresak hartzen dituzten erabakiak elkarren artean lotuta daude, eta horrela, baldintzatu egiten dituzten beste enpresa askoren erabakiak. Horren ondorioz, familia batzuk botere izugarri bat dute gaur egun.

Enpresaren erabakiak baldintzatzeko ez dago beharrik akzioen jabetzaren %51 izatea, hain sakabanatuta dagoenez akzioak hain sakabanatuta dagoenez, gerta daiteke, ehuneko ez oso handi batean zure erabakiak aurrera atera daitezke.

Liberalismoak definitzen duen enpresarioaren ereduarekin ez du zereginik gaur egungo enpresariekin.

Baina eurek, euren burua defenditzeko liberalismoaren kontzeptuan oinarritzen dira. Liberalismoa soilik merkaturian existitzen bada, enpresa txikietan izango da.

Erakundearen logika, botere gune logika dute oinarritzat multinazionalak.

Munduko akzioen %80ek 700 enpresek dute. Enpresa hauek tradizionalki europar zein amerikarrak dira, baina gaur egun, multinazional asko asiarrak dira.

Kapitalismoak aberastasunaren kontzentrazio ikaragarria sortu du. Gaur egun, estatua gero eta gehiago aberasten denean, pobrezia jarraitu egiten du edo handitzen da, baina jaitsi ez da jaisten.

Estatuaren zerbitzuak gero eta diru publiko gutxiago ematen du. Gaur egun, estatuak langileen soldatetatik hartzen dute dirua eta zergetatik ere.

Lobbyak: erakunde elkarte eta bereziki enpresek dituzten presio taldeak dira, euren eskakizunek soilik interes pribatuak babesten dituzte. Enpresario nagusiek lortzen dituzte boterearengandik euren negozioerako; jokoan politika, hau da, botere publikoa, eta enpresak elkarren abantailak lortzeko.

Beste estatuetan, aldiz, dena ofizialtasunez dago betea, formal dago hartuta nor den lobby eta nor ez, hala dena gardenagoa da eta dena publikoa da. Beste toki batzuetan politiko askok bidaiak egiten dituzte enpresak bisitatzera baina pribatuki negozioak egitera doaz, ez dakigu publikoki zer dioten eta zer ez.

Estatuaren laguntza:

Nahiz eta teoriarik liberalak izan, estatuaren diru publikoa diru pribatu bihurtzeko tresna batzuk daude.

“Kanpo inbertsioak erakarri nahi ditugu eta horretarako laguntza batzuk emango dizkiegu enpresa hona etor dadin”, laguntzak ere ematen dira, ikerketa garapen eta aurrerapenen izenean.

Transnazionalak

Gaur egun, ezagutzen dugun ekonomian, praktikan, enpresa guztiek dute lotura botere politikorekin. Ekonomian transnazionalak botere gune pribatuak dira, baina botere gune publikoekin lotura zuzena dute.

Gaur egun, kapitalismoari laguntxoek ekonomia deritza, politikaren eta ekonomiaren artean ate birakariak deritzen zubiak daudelako.

Enpresei laguntzeko hainbat modu daude:

- **Legeak:** arauak egiten dira enpresa horietako legeak ezartzeko. Arau hauek Lobbyen pean egina dira, eta arau hauek ez dira interes orokorrean oinarrituak, presiopean egindako legeak dira. Sortzen diren arauak ez dira neutralak, eta hauekin enpresei laguntza ematen zaie.
- **Laguntza ekonomikoa:** laguntza hauek batzuetan interes orokorrean justifikatuak izaten dira. Baina, praktikan ez dago inolako interes orokorrik. Laguntza ekonomiko auek emateko modu asko daude.
 - Ez zaie dirua zuzenean ematen, laguntza zuzenean ematen diete lokalizazioa bultzatuz.

- Zeharkako laguntzak ezartzen dituzte, hala, erraztasunak emanez.

Beraz, esan dezakegu truku eta modu asko daudela enpresei laguntzak helarazteko. Sektore batzuk bultzatu ahal izateko dirua ematen zaie enpresa jakin batzuei.

Enpresa hauek dirua gordeta izaten dute, et honek laguntza ekonomiko zuzen ematen du.

- **Kontratazio publikoa:** egun, ekonomiaren zati handi bat estatuaren inbertsioen bitartez mugitzen da, estatuak diru asko ematen duelako azpiegiturak egiteko; aireportuak, komunikazio sareak, energia sareak, etab.

Estatuak lan hauek egin ahal izateko enpresa batzuk kontratatzen ditu, eta hala, enpresa bereziei laguntza bereziak ematen dizkiete. (Kontratazioa ez zaio edonori ematen).

Estatuak bere nahien arabera edota bere lagunak diren horiei tratu berezia emateari kapitalismo klientelarra deritzo. Baina, hau nola ezin den aurrea legalki eraman hainbat manipulazio jarrera eramaten dira aurrera.

- **Diplomazia ekonomikoa:** botere publikoak enpresa jakin batzuei erraztasunak ematen dizkie, eta halako proiektuak aurrera eramaten dira.
- **Abokatu lana:** estatuak dirua gastatzen du, bere tribunaletan dirua inbertitzeko, hau da, pertsona batek babestua izan dadin inbertitzen duen dirua.

Enpresa hauen interesak patenteei dagokienez ez duten ahalik eta ikerketa eta berrikuntza gehien bultzatzen. Hauek ikerkuntza hauek beren gain hartzen dituzte, eta gainerako enpresei erabilera debekatzen diete.

- **Kiebrarik eza.** Teorian enpresek beti dute arrisku bat, eta euren enpresen etekina nola ordaindu jakin gabe gera daiteke. Hots, enpresa batek ez du berak sortu dituen zorrei aurre egiteko gaitasunik.

Kiebra egiteko arriskua soilik enpresa txikiek izango dute; beraz, enpresa guztiak ez daude kiebra egitearen arriskupean. Enpresa txikien kiebra pribatizatuta dagoelako, eta enpresa handiena, aldiz, arazo publiko gisan azaltzen da, eta denon dirua erabiltzen dute arazo horiei aurre egiteko.

- **Kanpoko enpresa konpetidore baten aurkako neurriak hartzea.** Hau aurrera eraman ahal izateko tresna ezberdinak daude. Enpresa askok ezin dituzte hainbat adierazpen egin, eta kanpo produktuak sartze ez uzteko aitzakia bat asmatzen dute.

Hemengo produkzio bat babestu nahi badugu aitzakia kaltegarria dela aipatzen zaio, eta hainbat laguntza murrizten dira.

Praktikan enpresa inportante guztiak botere ekonomiko eta politikoarekin lotuta daude. Hau da kapitalismo klientelarra izena ematearen arrazoia. Ez dago liberalismoan oinarrituta dagoen kapitalismorik.

Erakunde 'kontsultiboak'

Mundu mailan badaude erakunde batzuk teorian errekomentazioak emateaz, munduaren martxa nondik nora doan azaltzeaz eta proposamenak egiteaz arduratzen dira. G8a esaterako.

Teorian erakunde kontsultibo gisa funtzionatzen duten arren, praktikan modu neoliberal baten gisa jarduten du.

Estatuarik gabeko merkatua?

Gauza bat da errealitatea eta legeetan esaten dena, eta beste gauza bat da botereak benetan nola funtzionatzen duen. Egun, legearen eta errealitatearen aldea askoz ere zabalagoa da.

Estatuak zituen ekonomia kontrolatzeko tresnak indargabetu egin diren arren, estatuak ez du bere papera galde, eta ez du merkatua inposatzen. Estatu eta merkatuaren arteko oreka da estatu sozialaren oinarria.

Estatuak ez du merkatua murriztu edo kontrolatzeko sistema bezala funtzionatzen, estatu merkatuaren tresna bihurtu da, eta ez liberalismoaren tresna. Hots, kapitalismoaren tresna bihurtu da.

Ez dago estatuaren eta merkatuaren arteko orekarik. Estatuak bizirik jarraitzen du, eta kapitalismo forma baten tresna gisa mantentzen da. Ez dago politika eta ekonomiaren arteko oreka bat; ekonomia inposatu egiten da, eta estatuaren gaineko tresna bihurtu.

Hau, kapitalaren internazionalizazioan ageri da. Kapitala globala bihurtu denean, lana ez da globala, hau da, ez dago langileak munduan zehar aske mugitzeko eta kanpotarren sarrera murriztuta dago. Langileek estatu batekoak izaten jarraitzen dute, eta langileek lotuta jarraitzen dute. Baina, kapitala askatasun osoz mugitu daiteke.

Honek, kapitala nagusitzea dakar globala delako; baina, lana, aldiz, nazionala da. Beraz, estatuaren erakundeak dagoen kapitalaren metaketaren tresna bihurtuko dira.

Gaur egun, demokraziaren helburu nagusizat jartzen da merkatuaren mantentzea. Eztabaida politiko guztietan inposatzen den ideia; lehia batean bizi garenez erabakitzen den guztiak lehia batean egon beharra du.

Beraz, politikak teorian dituen muga horiek mantentzen dira; baina, denen gain bultzatzen den ideia lehiakortasuna da. Lehiakortasuna hainbat ideiarekin araberaren lortuko da; hauek, aurretik aipatutako hainbat erakundetan azalduko dira.

Itun ekonomikoak suposatzen du dena kapitalen mugimendu askearen menpe egon behar dela aldarrikatzen da. Hau da, berez mundu osoan gertatzen den prozesua EBn legeetan onartzen da. Kasu batzuetan estatuak bereziko inposatu zaizkie hainbat lege. *135. Artikuluak aldaketa bat izan du Troikaren eraginez; aurrekontu orekatuak izan beharra dira eta zorrak ere ordaindu egin behar dira.*

Garai batean existitzen zen estatu eta merkatuaren arteko oreka gaur egun desagertu egin da, eta estatuaren merkaturako trena bihurtu da.

Gaur egun non dago boterea?

Ezin dugu egun boterea non dagoen jakin, globalizazioan gauzak ez daudelako leku jakin batean, prozesu bat baita. Badaude pentsalari batzuk boterea non dagoenaren hainbat teoria dituztenak.

Antonio Negri inperialismoa bukatu dela, eta gaur egun duguna inperio bat dela dio. Ez daude interes nazional ezberdinak jokoan berdin du non kokatzen diren.

Badaude mundu mailako boterearen inguruko beste hainbat ideia. Baina, zehaztezinak dira. Estatu bakoitzaren barruan nola antolatuta dagoen ikus dezakegu

Estatu soziala beste estatu baterantz eboluzionatzen doan estatua da. Legeetan estatu interklasista gisan, hau da, langileen eta burgesen arteko interesez arduratzen dena, agetzen da. Baina, egun, politikak teorian helburu berdinekin funtzionatzen duen arren, helburu horien arteko lehentasunak aldatu egin dira.

Dauzkagun estatuetan funtzionamendu berak mantentzen dira. Baina, dauden helburu politikoekiko lehentasunen aldatze bat dago. Batzuk helburu nagusiak bihurtu dira, tresnek mantenduak; eta beste batzuk helburu funtzionalak. Estatuaren helburu nagusia merkatuaren lehiakortasunaren mugen barnean mantentzea da, ez ditu ekonomiaren eta gizartearen nondik norakoak helburutzat hartzen.

Estatuaren helburuek ez dute kontraesanean sartu behar. Merkatu globalaren nagusitasuna legeen bitartez edota konstituzioaren bitartez bideratzen da.

Gaur egun, honek ez du apenas alternatiba zehatzik nahiz eta joera honen aurkako mugimenduak izan. Baina, ez dago eredu alternatibo zehatzik, egun dauden baldintzen aurrean alternatiba bat planteatzen duenik. Alternatiba hauei globalizazioaren aurkako alternatibak deritze.

Bi motatako fenomenoak daude:

- Fenomeno Retroak: gustatzen ez zaigunez buelta gaitzen estatu nazionaletara. Hemen kontrol bat eta helburu nagusi batzuk zeuden, hala, mantendu eta defendatu egingo dute berek zutena. Honi protekzionismoa deritzo Beraz, lekuan lekuko merkatua babesten saiatuko dira. Kanpotarrei errua botaz lortuko dugu hau.
- Altermundialistak: estatuen artean edota maila internazionalan zerbait egin beharko litzateke. Boterea globala bihurtu da, eta erantzunak hala ez badira globala den botere baten aurrean kontrabotereak antolatu behar dira. Egund, hau ez dago oso antolatuta; baina, badaude hona jotzen duten hainbat talde. Hauen artean dago Foro Soziala (Foro Ekonomiko Mundialaren alternatiba izaten saiatzen da) baina honen ekimena gehienak modu protekzionista batera zuzenduta daude. Mugimendu asko existitzen diren arren, denak ez daude leku berera zuzenduta. Honek, kapitalismo finantzarioa kontrolatu beharra dela planteatzen du, eta honek, kapitalen mugimendu azkarretatik dirua atera behar del planteatzen du.

